


HEZKUNTZA-EGITASMOA: GURE IKASTETXEAN EREMUKA LAN EGITEN

+ EREMUKA LAN EGITEKO IKAS-EGOERA PILOTUA



IRALE R400

Izarne Elgezabal Gomez

Aurkibidea

0. IKASMATERIAL HONEN NONDIK NORAKOAK	3
I. HEZKUNTZA-EGITASMOA: GURE IKASTETXEAN EREMUKA LAN EGITEN	4
1. ZERGATIK? EGUNGO DBHKO 1. ZIKLOAREN HUTSUNEAK.....	4
2. NOLA? ANTOLAKUNTZA BERRIA: ARLOETATIK EREMUETARA.....	5
3. NOIZ? HEZKUNTZA-EGITASMOA ABIAN JARTZEKO FASEAK.....	9
4. METODOLOGIA.....	11
4.1. Kontuan hartzekoak.....	11
4.2. Ikasle-taldeak.....	12
4.3. Espazioaren erabilera.....	12
II. EREMUKA LAN EGITEKO IKAS-EGOERA PILOTUA: “Gazteak baleki, zaharrak baleza”	14
1. IKAS-EGOERAREN GIDA.....	15
1.1. Datu orokorrak.....	15
1.2. Ikas-egoeraren markoa.....	15
1.3. Curriculum-argudiaketa.....	17
1.4. Deskriptore operatiboen glosarioa.....	25
1.5. Ikas-egoeraren denboralizazioa.....	30
1.6. Ikas-egoera antolatzeko taldeak.....	31
2. JARDUEREN SEKUENTZIA LABURRA.....	32
2.1. Jardueren aurkibidea.....	32
2.2. Jardueren curriculum-plangintza.....	33
2.3. Jardueren denboralizazioa.....	37
2.4. Jardueren ebaluazioa.....	39
3. JARDUEREN SEKUENTZIA GARATUA.....	41
ERANSKINAK.....	45
AZKEN HITZA.....	79
BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA.....	80

0. IKASMATERIAL HONEN NONDIK NORAKOAK

SARRERA

90. hamarkadako LOGSE legeak aldaketa nabarmena ekarri zion gure ikastetxeetako egituraketari: ordura arte, Lehen Hezkuntzako etapak zortzi ikasturte zituen eta ikasleak 13-14 urte bete arte eskolan egoten ziren. LOGSE legeaz geroztik, 11-12 urterekin amaitzen dute ikasleek Lehen Hezkuntzako etapa; hortaz, bi urte lehenago murgiltzen dira institutu bateko antolaketan. Eskolan ikasleek ordu gehienak tutorearekin igarotzen dituzte; badago, berez, ikasgela bakoitzeko arduradun eta erreferente bat. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako egungo antolaketan, aldiz, tutoreak oso ordu gutxi ematen ditu bere ikasle-taldearekin. Ikasleen eta tutorearen arteko harreman murrizak hutsune nabarmena dakarkio hezkuntza-sistemari: irakasleok ezin ditugu behar bezala zaindu curriculumetik haratago doazen hezkuntzaren beste alderdi garrantzitsu hauek: ikasleen ongizate fisiko eta emozionala, eta haien arteko harremanak.

Premisa horretatik abiatuta, IRALEko R400 ikastaroko proiektu honetan, gure ikastetxean eremuka lan egiteko hezkuntza-egitasmo bat proposatu dut, gure ikasle-taldeek eta beren irakasleek elkarrekin denbora gehiago igarotzeko. Izan ere, Aixerrotan, DBHko 1. zikloan aritzen naizenetik, garbi ikusten dut LHko 6. mailatik DBHko 1. mailarako trantsizioak xamurragoa izan behar duela, eta, hori aldatzeko, uste dut hezkuntza-lege berriak ezarriko digun eremukako antolakuntza balia dezakegula.

ZER TOPATUKO DUGU IKASMATERIAL HONETAN?

Ikasmaterial honek bi zati ditu. Lehenengo zatia hezkuntza-egitasmoa bera da: bertan azalduko dut zergatik, noiz eta nola gauzatuko litzatekeen aldaketa Aixerrotako DBHko 1. zikloan, eta hausnartuko dut antolakuntza berriaren oinarri metodologikoen gainean. Hezkuntza-egitasmo hau ez da, noski, eremuka lan egiteko aukera bakarra: Aixerrotako irakasle-BeAtarrek EAEko eta beste eremuetako zenbait ikastetxetako proposamenak ezagutzen eta aztertzen dihardute. Nire ustez, ordea, bada guretzat aukera egoki bat, gure ikastetxeko errealitatean oinarritzen baita. Ikasmaterial honen helburua da aukera hori garatzea eta jasotzea, Aixerrotan eremuka lan egiteko bidean erabiltzeko.

Ikasmaterialaren bigarren zatian, eremuka lan egiteko ikas-egoera pilotua sortu dut: "Gazteak baleki, zaharrak baleza". Ikas-egoera horretan, Euskara eta Literatura, Geografia eta Historia eta Hezkuntza Plastikoa elkarrekin lantzen dira. "Curriculum-argudiaketa" eta "Jardueren sekuentzia laburra" ataletan hiru arloak uztartu baditut ere, "Jardueren sekuentziario garatua" atalean Euskara eta Literaturako jarduerak soilik jaso ditut. Asmoa da Geografia eta Historiako eta Hezkuntza Plastikoko jarduerak ikastetxera bueltatutakoan osatzea, arlo horietako irakasleekin elkarlanean. Edonola ere, uste dut sortutako material hau lagungarria izango dela, eta abiapuntu gisa erabili ahal izango dugula eremuka lan egiteko ikas-egoerak garatzen jarraitzeko.

I. HEZKUNTZA-EGITASMOA: GURE IKASTETXEAN EREMUKA LAN EGITEN

1. ZERGATIK? EGUNGO DBHKO 1. ZIKLOAREN HUTSUNEAK

Ikasketa-ibilbidearen antolakuntza DBHko 1. zikloan

DBHko 1. eta 2. mailatan 12 arlo daude. Arlo bakoitza irakasle batek irakasten duenez, egunero sei irakasle pasatzen dira ikasgela bakoitzetik. Ikusi, ondorengo koadro honetan, DBHko 1. mailako talde baten ordutegia:

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA		OSTEGUNA	OSTIRALA
08:30 - 09:25	Hezkuntza Plastikoa	Musika	Balio etikoak	08:30 - 09:25	KP / Erljioa	Euskara
09:25 - 10:20	Matematika	Ingelesa	Bio. - Geo.	09:25 - 10:20	Gaztelania	Ingelesa
10:20 - 11:25	Musika	Matematika	Gaztelania	10:20 - 11:25	Gorputz Hezkuntza	Tekno. / Fra. / Osa.
11:15 - 11:45	A T S E D E N A L D I A					
11:45 - 12:40	Euskara	Bio. - Geo.	Matematika	11:45 - 12:40	Tekno. / Fra. / Osa.	Gaztelania
12:40 - 14:00	B A Z K A L O R D U A			12:40 - 13:45	Bio - Geo	Matematika
14:00 - 14:55	Geo. - Hist.	Geo. - Hist.	Ingelesa	13:45 - 14:00	Tutoretza	Geo. - Hist.
14:55 - 15:50	Balio etikoak	Euskara	Gorputz Hezkuntza			

Ordutegian ikusten denez, Matematika irakasleak dira ikasle-taldearekin saio gehien igarotzen dituztenak –astean lau saio–, eta, gainerakook, astean hirutan, bitan edo behin bakarrik ikusten dugu ikasle-talde bakoitza. Beraz, ondoriozta dezakegu irakasle-tutore gehienok astean lau saio edo gutxiago izaten ditugula gure taldearekin egoteko. Aurreko ikasturtean, ikasle horiek LHko 6. mailan zeudenean, tutorea zen beren erreferente nagusia, taldearekin egunean bost ordu igarotzen baitzituen –astean 25 ordu inguru–. Ordu-kopuruaren datu horri soilik erreparatuta, garbi ikusten da ikasturte batetik besterako aldea oso handia dela, eta ikasleentzat aldaketa nabarmena dela.

Esan beharrekoa da, gainera, DBHko 1. zikloko ikasleen adinean –1. mailakoek 11 edo 12 urte izaten dituzte ikasturte hasieran–, curriculumak garrantzi handia badu ere, oraindik handiagoa duela alderdi pertsonalak –harremanek, ongizate fisiko eta emozionalak, etab. –. Bada, egungo antolakuntzarekin, oso zaila zaigu irakasleoi alderdi pertsonal horri behar besteko garrantzia ematea, ikasleekin denbora gutxiegi igarotzen dugulako. Bestalde, curriculumari erreparatuta ere, ez da onuragarria talde bakoitzean 12 irakasle sartzea, batez ere lan egiteko ohiturak oraindik berenganatu ez dituzten ikasleentzat, irakasleek ezin baitiete eskaini LHko 6. mailan zuten arreta.

Ikasle-taldeak eta jatorria

Getxoko Aixerrota institutuak 740 ikasle inguru ditu, eta, gutxi gorabehera, honela daude banatuta: 250 DBHko 1. zikloan, 230 DBHko 2. zikloan, 250 Batxilergoan eta 10 Zereginen Ikasketa Gelan (ZIG). Klaustroan, bestalde, ia 100 irakasle gara.

DBHko 1. zikloan, sei talde daude 1. mailan, eta batez beste 25 ikasle talde bakoitzean; 2. mailan beste sei talde, batez beste 21 ikasle talde bakoitzean. Gure ikasleak LHko hiru ikastetxetatik datoz nagusiki: Getxoko Andra Mari Eskola, Geroa Ikastola eskola eta Berangoko Berango-Merana eskola. Hori dela eta, DBHko 1. zikloaren hasieran gure ikasle askok ez dute elkar ezagutzen, eta, ondorioz, beren arteko harremanei bereziki erreparatu behar diegu. Egungo antolaketak, ordea, lan hori oztopatzen du: ikasleen arteko hartu-eman asko eskola-orduen tarteko momentuetan gertatzen dira, eta irakasleok gela batetik bestera ibili behar dugunez, ezin ditugu ikasleen arteko harremanak zaindu edota sustatu.

2. NOLA? ANTOLAKUNTZA BERRIA: ARLOETATIK EREMUETARA

Aurreko atalean azaldutako arrazoiengatik, eremukako antolakuntza honetan ikasle-talde bakoitzak irakasle gutxiago izatea lehenetsi dut. Ildo horretatik, gure ikastetxeko Curriculumak dibertsifikatzeko programako antolakuntza-eredua aztertu dut. Espezializazio-maila LHn baino altuagoa da, arlo gehiago baitaude, baina ikasleek egungo DBHn baino irakasle gutxiago dituzte eta, hortaz, eredu egokia da nire proposamenerako. Gainera, planteamendu hori da gure ikastetxeko gaur egungo funtzionamenduari bateragarriena eta, ondorioz, egingarriena, mintegietako irakasleen kopurua eta taldeen ordutegiak gutxi gorabehera mantentzen baititu. Uste dut ezinbestekoa dela planteamendu egingarria eta errealista izatea, hori baita bide bakarra egungo antolakuntzatik eremukakora igarotzeko modu progresiboan.

Curriculumak dibertsifikatzeko programako taldeak bi tutore ditu, eta tutore horietako bakoitza eremu baten arduraduna da: Eremu zientifiko-teknologikoa eta Hizkuntza- eta gizarte-eremua. Tutore bakoitzak astean 9 saio ditu bere esparruan, eta tutoretza eta Komunitate Proiektuko saioetan ere taldearekin egoten da: 11 saio denera. Gainera, irakasle horien ordutegia beste talde batzuen errefortzu-orduekin osatzen da.

Ikusi, jarraian, DBHko 4. mailako Curriculumum dibertsifikatzeko programako taldearen ordutegia:

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA		OSTEGUNA	OSTIRALA
08:30 - 09:25	Z. T.	H. G.	Z. T.	08:30 - 09:25	H. G.	H. G.
09:25 - 10:20	Z. T.	H. G.	Z. T.	09:25 - 10:20	Z. T.	H. G.
10:20 - 11:25	Arte Adierazpena	H. G.	Arte Adierazpena	10:20 - 11:25	Z. T.	Tutoretza
11:15 - 11:45	A T S E D E N A L D I A					
11:45 - 12:40	Ingelesa	Arte Eszenikoak	Ingelesa	11:45 - 12:40	H. G.	Arte Adierazpena
12:40 - 14:00	Arte Eszenikoak	Ingelesa	Gorputz Hezkuntza	12:40 - 13:45	H. G.	Gorputz Hezkuntza
14:00 - 14:55	B A Z K A L O R D U A			13:45 - 14:00	Z. T.	Z. T.
14:55 - 15:50	H. G.	Z. T.	KP			

Hizkuntza- eta gizarte-eremua (H. G.)
 Eremu zientifiko-teknologikoa (Z. T.)

Curriculumum dibertsifikatzeko programan bezala, hezkuntza-egitasmo honetan ere, bi eremu nagusi proposatu ditut irakasle bakoitzak bere ikasle-taldearekin ahalik eta ordu gehien igaroko dituela bermatzeko: Eremu zientifiko-teknologikoa –Balio Etikoak¹, Biologia eta Geologia, Matematika, Fisika eta Kimika, eta Teknologia eta Digitalizazioa–, eta Hizkuntza- eta gizarte-eremua –Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, eta Geografia eta Historia–. Hezkuntza-egitasmo honen proposamenaren arabera, bi irakasle izango dira taldearen tutoreak, eta irakasle bakoitza eremu bana irakasteaz arduratuko da. Gainerako arlo espezifikoak –Gorputz Hezkuntza, hautazkoak, Ingelesa, Musika eta Hezkuntza Plastikoa–, irakasle espezialistek irakatsiko dituzte. Irakasle espezialista horiek ez dira tutore izango, taldez talde arituko dira, egungo antolaketan bezala.

¹ Bi dira Balio Etikoak arloa Eremu zientifiko-teknologikoan sartu izanaren arrazoiak: batetik, ordu-banaketari begira komenigarriagoa da; eta, bestetik, aukera ematen du bai zientziaren, bai teknologiaren erabilera etikaren ikuspegitik aztertzeko.

Hurrengo taula hauetan DBHko 1. eta 2. mailetako jakintzagaien antolakuntza berria laburbildu dut, eremuen araberakoa:

DBHko 1. maila

Hizkuntza- eta gizarte-eremua		Eremu zientifiko-teknologikoa	
Jakintzagaia:	Asteko saio-kopurua:	Jakintzagaia:	Asteko saio-kopurua:
Euskara eta Literatura	3	Balio Etikoak	2
Gaztelania eta Literatura	3	Biologia eta Geologia	3
Geografia eta Historia	3	Matematika	4
Tutoretza + Komunitate Proiektua	2	Tutoretza + Komunitate Proiektua	2

Arlo espezifikoak			
Jakintzagaia:	Asteko saio-kopurua:	Jakintzagaia:	Asteko saio-kopurua:
Gorputz Hezkuntza	2	Musika	2
Hautazkoak	3	Hezkuntza Plastikoa	1
Ingelesa	3		

DBHko 2. maila

Hizkuntza- eta gizarte-eremua		Eremu zientifiko-teknologikoa	
Jakintzagaia:	Asteko saio-kopurua:	Jakintzagaia:	Asteko saio-kopurua:
Euskara eta Literatura	3	Balio Etikoak	2
Gaztelania eta Literatura	3	Fisika eta Kimika	2
Geografia eta Historia	3	Matematika	4
		Teknologia eta Digitalizazioa	2
Tutoretza + Komunitate Proiektua	2	Tutoretza + Komunitate Proiektua	2

Arlo espezifikoak			
Jakintzagaia:	Asteko saio-kopurua:	Jakintzagaia:	Asteko saio-kopurua:
Gorputz Hezkuntza	2	Musika	2
Hautazkoak	2	Hezkuntza Plastikoa	1
Ingelesa	3		

Aurreko tauletan ikus daitekeenez, eremuen arabera antolakuntza berriak errespetatzen ditu curriculumak zehaztutako arloak eta bakoitzari eskaini beharreko saio-kopurua; beraz, arloek ez dute autonomiarik galtzen beren oinarriko jakintzak garatzeko eta ebaluzioa curriculumaren arabera egiteko. Eta, aldi berean, bermatzen du ikasle-talde bakoitzak astean 18 ordu beren tutoreekin igarotzea. Ikusi ondorengo koadro honetan DBHko 1. mailako talde baten ordutegi berria:

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA		OSTEGUNA	OSTIRALA	
08:30 - 09:25	Hezkuntza Plastikoa	Musika	Balio etikoak	08:30 - 09:25	KP / Erljioa	Euskara	
09:25 - 10:20	Matematika	Ingelesa	Bio. - Geo.	09:25 - 10:20	Gaztelania	Ingelesa	
10:20 - 11:25	Musika	Matematika	Gaztelania	10:20 - 11:25	Gorputz Hez.	Tekno. / Fra. / Osa.	
11:15 - 11:45	A T S E D E N A L D I A						
11:45 - 12:40	Euskara	Bio. - Geo.	Matematika	11:45 - 12:40	Tekno. / Fra. / Osa.	Gaztelania	
12:40 - 14:00	B A Z K A L O R D U A				12:40 - 13:45	Bio - Geo	Matematika
14:00 - 14:55	Geo. - Hist.	Geo. - Hist.	Ingelesa	13:45 - 14:00	Tutoretza	Geo. - Hist.	
14:55 - 15:50	Balio etikoak	Euskara	Gorputz Hez.				

Hizkuntza- eta gizarte-eremua
 Eremu zientifiko-teknologikoa

Proposamen honek dakarren aldaketarik nabarmenena da gaur egun Euskara, Gaztelania eta Geografiako mintegietan 1. eta 2. mailatan diharduen irakasle bakoitzak arlo horiek guztiak irakatsi beharko dituela ikasle-talde bakarrean, eta berdin izango da Balio Etikoak, Biologia eta Geologia eta Matematika irakasleen kasuan 1. mailan; eta Balio Etikoak, Fisika eta Kimika, Matematika eta Teknologia eta Digitalizazioko irakasleen kasuan 2. mailan. Erronka handia da irakasleontzat; horregatik, ezinbestekoa da, batetik, geure burua prestatzeko baliabideak eta geure artean koordinatzeko denbora izatea; eta, bestetik, aldaketa gradualki egitea, hurrengo atalean azalduko dudak bezalaxe.


3. NOIZ? HEZKUNTZA-EGITASMOA ABIAN JARTZEKO FASEAK

Jakina da 2025-2026 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan eremuka lan egingo dela, eta, bat-batean hasi ordez, gure ikastetxean deritzogu egokitzapen-prozesu bat behar dugula. Horregatik proposatu dut hamar faseko prozesu hau DBHko 1. ziklorako. Egitasmo guztiak hiru ikasturteko iraupena izango du, 2023-2024 ikasturtean hasi eta 2025-2026 ikasturtean DBHko 1. ziklo osoa eremuka lan egiteko antolatuta izan arte. Jarraian, hamar faseen mugarriak eta iraupena zehaztuko ditut:

2023 - 2024	1. FASEA	1. Hezkuntza-egitasmoa sortzea. 1.1. Zehaztu hezkuntza-egitasmoa. 1.2. Garatu eremuka lan egiteko ikas-egoera pilotua. <i>2023ko iraila eta 2023ko abendua bitartean</i> , IRALEko R400 ikastaroan gauzatzen ari naiz proiektu hau.
	2. FASEA	2. Egitasmoa egokia den aztertzea. <i>2023ko iraila eta 2023ko abendua bitartean</i> , aurreko lan-ildoarekin batera, ikastetxearen antolamendua eta plangintza kontuan hartuta –ordutegiak, mintegiak, irakasleak eta ikasle-taldeak–, irakasle-BeAtarrak eta zuzendaritza-taldea proposamen hau egokia den aztertzen ari dira.
	3. FASEA	3. Egitasmoa klaustro-kideei zabaltzea. 3.1 Ezagutu irakasleen iritzia. 3.2 Identifikatu egitasmoa garatzen jarraitzeko prest dauden irakasleak. <i>2024ko urtarrilean</i> , hezkuntza-egitasmo hau klaustroan aurkeztuko dugu eta irakasle guztiei galdetegi bat helaraziko diegu, beren iritzia ezagutzeko eta DBHko 1. zikloan arituko diren irakasleen artean proposamena garatzen jarraitzeko prest daudenak identifikatzeko.
	4. FASEA	4. Egitasmoaren txostena Hezkuntza Sailari helaraztea. <i>2024ko otsaila eta martxoa bitartean</i> , hezkuntza-egitasmoaren txostena Hezkuntza Sailari helaraziko diegu eta 2024-2025 ikasturtean proposamena garatzen jarraitzeko baliabideak eskatuko ditugu –irakasleok elkarlanean aritu ahal izateko ordu-poltsa eta abar–.

2023 - 2024	5. FASEA	<p>5. Ikas-egoera pilotua probatzea eta hobetzea.</p> <p>5.1 Probatu ikas-egoera pilotua ikasgelan.</p> <p>5.2 Aztertu esperientzia eta ikas-egoera pilotuan hobekuntzak egin.</p> <p>2024ko apirila eta maiatza bitartean (Aste Santuko oporren ondoren, 8 astez), ikas-egoera pilotuaren jardura batzuk ikasgelan egingo ditugu Euskara eta Literatura, Geografia eta Historia eta Hezkuntza Plastikoko saioetan. Aurreikusten dut ezinezkoa izango dela hiru arloetan proposatutako jardura guztiak lantzea, proposamen hau urteko programazioa zehaztu ondoren iritsi baita, baina, irakasleen oniritziarekin, jardueretako batzuk eta azken produktuaren zati bat garatu ahal izango ditugu, horien egokitasuna aztertu eta hurrengo ikasturteari begira aldaketak egiteko.</p>
	6. FASEA	<p>6. Eremuka lan egiteko batzordea osatzea (ELB).</p> <p>2024ko ekainean, ikasturtea bukatu aurretik, batzorde bat osatuko dugu, 2024-2025 ikasturtean gure hezkuntza-egitasmotik abiatuta lanean jarraitzeko.</p>
2024 - 2025	7. FASEA	<p>7. Eremukako urteko programazioa eta ikas-egoera guztiak sortzea.</p> <p>2024-2025 ikasturte osoan zehar, eremuka lan egiteko batzordea DBHko 1. ziklorako ikas-egoera guztiak sortzen arituko da. Horretarako, batzordekideek astean ordubetez biltzeko aukera izan behar dute, gutxienez.</p>
	8. FASEA	<p>8. Eremuka lan egitea probatzea.</p> <p>2024-2025 ikasturteko 2. ebaluazioan, eremuka lan egitea probatuko dugu DBHko 1. zikloko talde guztietan. Horrekin batera, inplikaturiko irakasleok prozesuaren behaketa-lana egingo dugu, gauzak ongi ala gaizki atera diren identifikatzeko.</p>
	9. FASEA	<p>9. Feedbacka aztertzea eta hobekuntzak egitea.</p> <p>2024-2025 ikasturteko 3. ebaluazioan, eremuka lan egiteko batzordeak 2. ebaluazioko esperientziaren feedbacka aztertuko du eta datorren ikasturteari begira hobekuntzak egingo ditu.</p>
2025-2026	10. FASEA	<p>10. Eremuka lan egitea.</p> <p>2025-2026 ikasturtean, DBHko 1. zikloan eremuka lan egingo dugu. Ikas-egoera eta material guztiak sortuta egonik, batzordearen bilera-orduak murriztu daitezke, eta soilik behaketa eta feedbackaren azterketa egiteko tarteak mantendu.</p>

Ondorengo kronograma honekin, grafikoki laburbildu nahi dut azaldu berri ditugun hamar faseen denboralizazioa:



4. METODOLOGIA

Proiektu hau garatu ahala, metodologiaren gaineko zenbait hausnarketa bildu ditut. Ezinbestekoa iruditzen zait hausnarketa hauek guztiak ikastetxean aztertzea eremuka lan egiten hasten garenean:

4.1. Kontuan hartzekoak

- Antolakuntza berrian, ikas-egoerak izango dira ikaskuntza-prozesuaren funtsa eremuka lan egiteko. Horrek ez du esan nahi ikasturtean une oro arloak uztartuko ditugunik: arlo desberdinetako ikas-egoera baten barruan, arlo bakoitzak urrats batzuk bete behar ditu. Horiek betetakoan, arlo horren lana bukatu egingo da ikas-egoera zehatz horretarako. Aipatutako dinamika horrek autonomia dakarkio arloari oinarrizko jakintzak bere kabuz garatzeko. Adibidez, Euskara eta Literatura arloan irakurketa dialogikoa lantzeko eleberri bat irakurtzen bada, irakasleak erabaki lezake irakurketa hori lantzeko Euskara eta Literatura arloari soilik dagokion ikas-egoera bat sortzea; eta, bitartean, Hizkuntza- eta gizarte-eremuko beste arloetan –Geografia eta Historia, eta Gaztelania eta Literatura– ere independenteki garatzea oinarrizko jakintzak. Eremu zientifiko-teknologikoan ere berdin izango litzateke.

- Lehen komentatu bezala, bi eremu proposatu ditut: Eremu zientifiko-teknologikoa eta Hizkuntza- eta gizarte-eremua. Hala ere, ikas-egoera bat sortzean, ez du zertan izan eremuko arloak elkartzea. Izan daiteke, adibidez, ikas-egoera batean Matematika eta Geografia eta Historia arloak uztartzea, hots, Hizkuntza- eta gizarte-eremuari dagokion arlo bat eta Eremu zientifiko-teknologikoari dagokion beste bat; edo Matematika eta Musika, hau da, Eremu zientifiko-teknologikoari dagokion arlo bat eta arlo espezifiko bat.
- Ikas-egoera pilotua egiteko, bost baldintza bete ditut, eta uste dut baldintza horiek ikas-egoera guztien oinarria izan beharko luketela. Hona hemen bost baldintzak:
 - 1) Gure inguru hurbiletik abiatzea.
 - 2) Gaur egungo gizartearen arazoetan oinarrituta egotea.
 - 3) Ikasleentzat esanguratsuak diren gaiak tratatzea.
 - 4) Erronka motibagarriak proposatzea.
 - 5) Ikasleek aktiboki parte hartzeko jarduerak diseinatzea.


4.2. Ikasle-taldeak

Gaur egungo kasuistika dela eta, Aixerrota, ikasle-taldeak egiteko erabiltzen den irizpidea ikasleek aukeratutako hautazkoen arabera da. Horren ondorio zuzena da zenbaitetan taldeak ez direla orekatuak eta alde nabarmena egon daitekeela taldeen artean, bai maila akademikoan, bai jarrera aldetik. Hezkuntza-egitasmo honekin, ordea, beste aukera bat eskaintzen dugu taldeak osatzeko, beste irizpide batzuk kontuan hartuta: ikasleen jatorria, harremanak, behar bereziak dituzten ikasleak, eta abar.


4.3. Espazioaren erabilera

Hezkuntza-egitasmo hau garatzerakoan, pentsatu dut egokiena dela gure ikastetxeak gaur egun daukan espazio-banaketatik abiatzea. Jakin badakigu eremuka lan egiten duten beste ikastetxe batzuetan espazioen banaketan aldaketak egin dituztela –ikasgeletako hormak eraitsi, erabilera-anitzeko gelak sortu, beirazko barne-banaketak, etab.–, baina Aixerrota ez dago aurreikusita horrelako esku-hartzerik epe laburrera. Gauzak horrela, ikasgelen barne-espazioan jarri dut arreta, eta eremukako ikas-egoerak lantzeko moldaketa xumeak proposatu ditut. Ikusi hurrengo orrialdeko irudia.

Ikasgela orain




Ikasgela berria



Bestalde, ikaskuntza-irakaskuntza prozesu esanguratsua eta motibagarria bilatze aldera, ikas-egoerek gure ingurune hurbilarekin lotura estua izango dute: guztion erronka izango da gure egungo gizartearen arazoren bat hobetzeko ekarpenak egitea, eta ekarpen horiek herrian nahiz eskualdean zabaltzea. Horregatik, gure ikastetxeko ikas-egoeretan landa-lanak berebiziko garrantzia izango du eta zenbait jarduera kanpoan egingo ditugu. Azken produktuak ere herriko zenbait txokotan erakusten saiatuko gara –kultura-etxean, esate baterako–, ikasleen familiak edo interesa duten herritarrak inplikatzeko asmoz.

IKAS-EGOERA PILOTUA:

“Gazteak baleki, zaharrak baleza”



II. EREMUKA LAN EGITEKO IKAS-EGOERA PILOTUA: “Gazteak baleki, zaharrak baleza”

1. IKAS-EGOERAREN GIDA

1.1. Datu orokorrak

IZENBURUA: GAZTEAK BALEKI, ZAHARRAK BALEZA	SAIO-KOPURUA: 8 ASTE (56 saio)
IRAKASGAIA(K): Eremuka lanean: Euskara eta Literatura, Geografia eta Historia, eta Hezkuntza Plastikoa.	-24 saio Euskara eta Literatura -24 saio Geografia eta Historia -8 saio Hezkuntza Plastikoa
IRAKASMAILA: DBHko 1. maila	

1.2. Ikas-egoeraren markoa

TESTUINGURUA

Arbasoen istorioekiko jakin-mina berezkoa zaio gizakiari. Gure aitona-amonen garaian, eta baita lehenago ere, ahozko tradizioak berebiziko garrantzia zuen, ezagutza belaunaldiz belaunaldi transmititzeko bidea baitzen. Bizimodua naturan errotua zegoen horretan, urteen esperientziak jantzitako ofizioak eta usadioak ikastea beharrezkoa zen aurrera egiteko. Bestalde, ikuspuntu sozial eta gizatiar batetik aztertuta, arbasoen istorioek zati baliotsu bat hartzen zuten pertsonen egunerokotasunean. Ohikoa zen, esaterako, bazkalondoan zein afalondoan aitona-amonek edo gurasoek beren bizipenak kontatzea, beren ingurua bestelakoa izan zeneko azalpenak ematea, auzoa edo herria edo lurraldea markatu zuten gertaerak gogora ekartzea...

Bizimodua asko eta arin aldatu da gurean azken mendean, eta, ondorioz, gazteok ez dugu gure iragan hurbila ondo ezagutzen. Egunero, ikastetxera edo lanera bidean, gure auzoetako kaleak, estratak eta bidexkak ibiltzen ditugu inguruneari erreparatzeko paradarik edo astirik gabe; nabarmena da gurean belaunaldien arteko ezagutza eta harremanak indartzeko beharra.

ABIAPUNTUA

Aixerrotako ikasleek institutura bidean igarotzen duten Getxoko Andra Mari auzoan baserri zaharrek eta azken urteotako etxebizitza-multzo berriek bat egiten dute. Nekazaritza-giroan hazitako pertsonak eta egungo bizi-martxa bizkorrean dihardutenak elkarrengandik oso gertu baina oso urrun bizi dira.

Zer gordetzen du egunero erabiltzen dugun paisaiak? Nola bizi ziren bertan gure arbasoak? Nola lagundu diezaguke iraganaren ezagutzak oraina hobeto ulertzen? Zer egin dezakegu ondare ukiezin hori bildu eta ezagutarazteko? Onuragarria litzateke horrelako ekimena herritarrontzat eta gizartearentzat?

AZKEN EKOIZPENA(K)

Ikasleek euskarri anitzeko erakusketa –ikus-entzunezko aurkezpenak, horma-irudiak, maketak eta mahai-ingurua– prestatuko dute herriko kultura-etxean aurkezteko. Bertan, Getxoko Andra Mari landa-auzoaren azken mendeko bilakaeraren zenbait alderdi (bizimodua, demografia, paisaia, arkitektura...) ikertu eta azalduko dituzte hainbat belaunalditako auzokideen ahozko testigantzetan oinarrituta.

PROPOSAMENAREN XEDEA

Ondare ukiezina bildu eta berreskuratzeko proposamen honek ikasketa esanguratsua bilatzen du, ikasleak gizartearen aktiboki aritzea eskatzen baitu. Ildo horretatik, bi helburu nagusi ditu ikas-egoerak:

- 1) Batetik, landa-lanaren bitartez ahozko testigantzak jasotzeko, ikasleak beren inguru hurbiletik abiatzea.
- 2) Bestetik, hainbat belaunalditako herritarren arteko loturak egitea. Ikasleak eta adinekoak harremanetan jartzearen onura pertsonalen artean, honako hauek nabarmenduko ditugu:
 - Ikasleek etorkizunera begiratzeko baliabideak aberasteko aukera izango dute.
 - Pertsona nagusiek beren oroitzapenetan oinarritutako ezagutza gazteentzako balioestea, gazteentzat baliotsua dela ikusita.

1.3. Curriculum-argudiaketa

Arloa: **Euskara eta Literatura**

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ²	DESKRIPTORE OPERATIBOAK	OINARRIZKO JAKINTZAK ³
1. Konpetentzia eleaniztuna	1.3. Euskararekiko eta euskal kulturaren transmisioarekiko jarrera proaktiboa eta afektiboa dut. (A B1)	HKK1, HKK5, KE2, KE3, KD1, KD2, HK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3.	A. <u>HIZKUNTZAK ETA BEREN HIZTUNAK</u> Bizitza pertsonaleko eta eskola- eta gizarte-bizitzako askotariko esparruetan euskararen erabileraren aldeko interesa, ekimena eta portaera proaktiboa.* B. <u>KOMUNIKAZIOA</u> B1. TESTUA ETA TESTUINGURUA: Euskal musika-ondare tradizionalaren eta garaikidearen erreferentziako abestiak.
2. Ahozko ulermena	2.1. Ahozko testu errazak ulertzen ditut. Gai nagusia eta igorlearen asmoa identifikatzen ditut. (B2) 2.2. Kanalaren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzen ditut. Erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatzen dut. (B2)	HKK2, KE2, KD2, KD3, STEM4, KPSII4, KPSII5, HK3.	B. <u>KOMUNIKAZIOA</u> B2. ULERMENA: Ahozkoaren ulermenerako estrategiak. Testuaren zentzu globala eta zatien arteko erlazioa, informazio garrantzitsuen aukeraketa eta atxikipena. Igorlearen asmoa, testuinguru-elementu esplizituetatik abiatuta.* Ahozko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia aztertze eta baloratzeko jarraibideak.*
3. Ahozko ekoizpena	3.1. Ahozko narrazio eta azalpen errazak egiten ditut, ahozko eta hitzik gabeko erregistro eta baliabide egokiekin. (B1 B3 B6) 3.2. Ahozko interakzio informal eta formaletan parte hartzen dut. Aktiboki eta errespetuz entzuten dut. (B3 B4)	HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, EK1.	B. <u>KOMUNIKAZIOA</u> B1. TESTUA ETA TESTUINGURUA: Oinarrizko testu-sekuentziak, arreta berezia eskainiz narrazioari, deskripzioari, elkarrizketari eta azalpenari.* B3. PRODUKZIOA: Informazioa bilatzearekin, testuinguruan kokatzearekin eta berrikustearekin lotzen diren ahozko produkzio formalerako eta sormenezko produkziarako estrategiak. Audientziaren eta

² Ebaluazio-irizpideak iturri honetatik bere horretan hartuak: Koldo Mitxelena BHiko irakasle-BeAtar Sergio Tejeroren KMKurrikuluma webgunea (curriculum sinplifikatua).

³ Oinarrizko jakintzak curriculumetik bere horretan hartuak (77/2023 maiatzak 30).

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
			<p>esposizio-denboraren araberako egokitzapena. Hitzekoak ez diren elementuak. Ahozotasun formalaren diskurtso- eta hizkuntza-ezaugarriak.*</p> <p>B4. ELKARRERAGINA: Ahozko eta idatzizko elkarreragin informalerako estrategiak, testuinguru analogikoetan eta digitaletan: hitza hartzeko eta hitza uzteko estrategiak.*</p> <p>Elkarrizketa-kooperazioa eta hizkuntza-kortesia; entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketa, genero-ikuspegitik.*</p> <p>B6. HIZKUNTZA-ELEMENTUAK: Testuetan aditz-formak ezagutzeko eta koherentziaz erabiltzeko jarraibideak. Narrazioko iraganaldiko denborak . Kontakizun-diskurtsoko denbora-korrelazioa.*</p>
4. Idatzizko ulermena	<p>4.1. Testu idatziak ulertzen ditut. Gai nagusia identifikatzen dut. (B2 B7)</p> <p>4.2. Kanalaren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzen ditut, baita erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ere. (B5)</p>	<p>HKK2, KE2, KD2, KD3, STEM4, KPSII4, KPSII5, HK3.</p>	<p>B. KOMUNIKAZIOA</p> <p>B2. ULERMENA: Irakurriaren ulermenerako estrategiak. Testuaren zentzu globala eta zatien arteko erlazioa, informazio garrantzitsuen aukeraketa eta atxikipena. Igorlearen asmoa, testuinguru-elementu esplizituetatik abiatuta.*</p> <p>Generoen testu-egiturak ezagutzeko jarraibideak.*</p> <p>Idatzizko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia aztertzeko eta baloratzeko jarraibideak.*</p>
5. Idatzizko ekoizpena	<p>5.1. Testu idatzi eta multimodal errazak planifikatzeko zirriborroak idazten ditut. (A B7 B3)</p> <p>5.2. Testu idatziak koherentziaz, kohesioz, egokitasunez, zehaztasun lexikoz eta zuzentasun ortografiko eta gramatikalez idazten ditut. (B1 B3 B6 B7 D)</p> <p>5.3 Hizkera ez-sexista eta ez-diskriminatzailea erabiltzen dut ingurune analogiko eta digitaletan. (A B3)</p>	<p>HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2, EK1.</p>	<p>A. HIZKUNTZAK ETA BEREN HIZTUNAK</p> <p>Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzeko oinarrizko estrategiak, hizkuntzaren erabilera sexista barne, eta horiek saihesteko moduak.*</p> <p>B. KOMUNIKAZIOA</p> <p>B1. TESTUA ETA TESTUINGURUA: Gaia. Testuaren asmoa.*</p>

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
	5.4 Azken testua berrikusi, zuzendu eta zabaltzen dut. (B7)		<p>Testuaren propietateak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna. Oinarrizko nozioak.*</p> <p>B3. PRODUKZIOA: Testuen idatzizko produkzioarako estrategiak, plangintzarekin, idazketarekin, berrikuspenarekin, edizioarekin eta hainbat euskarritan hedatzearekin lotzen direnak.*</p> <p>Pentsamendua antolatzeke eta emozioak kudeatzeko idazketaren erabilerak: idazketa automatikoa, oharrak hartzea, eskemak, buru-mapak, antolatzaile grafikoak, definizioak, laburpenak, eta abar.* Zuzentasun lexikoa.*</p> <p>B6. HIZKUNTZA-ELEMENTUAK: Perpauaren osagaiak lotzeko euskararen berezko hizkuntza-elementuak (aditz-komunztadura eta deklinabidea)*. Kohesio-mekanismoak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteko estrategiak. Denbora, azalpen, ordena, kontraste eta abarrerako testu-lokailuak. Barne-erreferentziako mekanismo gramatikalak (ordezkatzeko pronominalak) eta lexikoak (errepikapenak, sinonimoak, hiperonimoak eta elipsiak).*</p> <p>Testuen hizkuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografikoa eta gramatika. Euskarri analogikoko edo digitaleko hiztegien, kontsulta-eskuliburuen eta zuzentzaile ortografikoen erabilera.*</p> <p>B7. LANAREN ANTOLAKETA ETA IKASKUNTZARI BURUZKO GOGOETA: Autokonfiantza, ekimena eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa eta hobetzeko aukera gisa. Autoebaluazioarako, autorregulazioarako eta koebaluazioarako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, eta kooperatiboak eta indibidualak.*</p> <p>D. HIZKUNTZARI BURUZKO GOGOETA Hizkuntza-sistemari buruzko nork bere ondorioak gidatuta eraikitzeke eta komunikazio-unitateak behatu, alderatu eta sailkatzeko estrategiak, metahizkuntza espezifikoa erabiliz.*</p>

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
			<p>Hizkuntzaren —sistema gisa— eta haren oinarrizko unitateen oinarrizko nozioak, maila desberdinak kontuan hartuta: soinua eta idazketa-sistema, hitzak (forma eta esanahia), diskurtsoan duten antolaketa (hitzen ordena, perpausen osagaiak edo esanahien arteko lotura).*</p> <p>Kategoria gramatikalak eta funtzio sintaktikoak. Prozedura lexikoak (afixuak) eta sintaktikoak, kategoria aldaketarako.*</p> <p>Perpaus bakunaren eskema semantikoaren eta sintaktikoaren arteko erlazioa. Eskema horien arabera enuntziatuak behatzeko eta eraldatzeko jarraibideak eta beharrezko terminologia sintaktikoaren erabilera. Hitzen ordena eta komunztadura.*</p>
<p>6. Informazio fidagarria hautatzea. -Jabetza-intelektualarekiko errespetua</p>	<p>6.1. Hainbat iturritatik datorren informazioa aurkitu, aukeratu eta kontrastatzen dut, fidagarritasuna kalibratuz. Eskema propioetan antolatzen dut. (B5 B7)</p> <p>6.2. Hainbat euskarritan eta hainbat gairi buruzko ikerketa-lanak egiten ditut. (B1 B3 B5 B7)</p> <p>6.3. Informazio digitala modu seguru eta osasungarrian bilatzen dut. Egile-eskubideak errespetatzen ditut. (B5)</p>	<p>HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII4, KPSII5, HK2, EK3.</p>	<p>B5. INFORMAZIO ALFABETATZEA</p> <p>Informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak, fidagarritasun-, kalitate-eta egokitasun-irizpideak erabiliz; informazioaren azterketa, balorazioa, berrantolaketa eta sintesia —norberaren eskemetan— eta informazioa ezagutza bihurtzeko estrategiak; sormenezko komunikazioa eta hedapena, jabetza intelektualaren errespetatzen duena.*</p> <p>B7. LANAREN ANTOLAKETA ETA IKASKUNTZARI BURUZKO GOGOETA:</p> <p>Banakako eta taldeko lana testuinguru analogiko eta digitaletan antolatzeko estrategiak, genero-ikuspegiarekin.</p>

Arloa: Geografia eta Historia

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
<p>1. Iturri geografiko eta historikoen erabilera</p>	<p>1.1. Informazioa bilatu, hautatu, antolatu eta komunikatzen dut. (A2 A3 A4 A5 B3)</p> <p>1.2 Iturriak kontrastatu eta baloratzen ditut. (A4 A5)</p>	<p>HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK3,</p>	<p>A. EGUNGO MUNDUAREN ERRONKAK</p> <p>A2. Kokapen espaziala. Espazio geografikoaren irakurketa eta irudikapena: mapak, orientazioa eta eskalak.*</p> <p>A3. Mapen, eskemen, irudien eta irudikapen grafikoaren azterketa eta iruzkina, toki-esparrutik esparru globalera. Geografia Informaziorako Teknologiak (GIT).*</p>

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
		EK3, KAKK3.	<p>A4. Gailuen, informatika-aplikazioen eta plataforma digitalen erabilera, Geografia eta Historia aztertzeko. Komunikazio-sareen erabilera segurua.</p> <p>A5. Informazioaren bilaketa esparru digital eta analogikoetan, informazio horren irakurketa eta balorazio kritikoa eta hainbat formatutan produktu anitzen sorrera, ezagutza lantzeko bide gisa.</p> <p>B. <u>GIZARTEAK ETA LURRALDEAK</u></p> <p>B3. Denbora-lerroen eraikuntza eta interpretazioa, linealtasun-, kronologia-, aldiberekotasun- eta iraupen ikuspuntuen bidez prozesu historikoak ulertzeko.*</p>
2. Paisaiaren ikerketa	2.2. Gizakiok gure paisaian eragiten ditugun aldaketak identifikatzen eta aztertzen ditut. (C4 A7 A10 A12 A13 C5)	KPSII2, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1.	<p>A. <u>EGUNGO MUNDUAREN ERRONKAK</u></p> <p>A7. Tokiko, eskualdeko eta munduko paisaia naturalak: paisaia-motak eta ezaugarriak.*</p> <p>A10. Natura-ondarearen oparotasuna eta balioa. Giza eragina ekosistemen aldaketan, iraganean eta gaur egun. Tokiko ingurunearen eta ingurune globalaren kontserbazioa eta hobekuntza.</p> <p>A12. Paisaia gizatiartua. Hiri-aglomerazioak eta landa-eremuak. Hiriko bizitzaren erronkak eta landa ingurunearen iraunkortasuna. Landa-munduaren despulazioaren eta hiri-gainpopulazioaren arazoak.*</p> <p>A13. Landa- eta hiri-paisaia Euskal Herrian. Egoera demografikoa eta ekonomikoa, eta etorkizuneko arazo eta erronka nagusiak.*</p> <p>C. <u>KONPROMISO ZIBIKOIA</u></p> <p>C5. Ingurumen-kontzientzia. Izaki bizidunen eta planetarekiko errespetua eta horien babesa eta zaintza.</p>
5. Demografiaren ulertzea eta gizarte osasuntsua	5.2. Iraganeko bizimoduen ezaugarriak identifikatu eta egungoekin konparatzen ditut, eskaintzen duten aberastasuna baloratuz. (A11 C7)	STEM5, KD4, KPSII2, KPSII5, HK1, HK2, HK3.	<p>A. <u>EGUNGO MUNDUAREN ERRONKAK</u></p> <p>A11. Demografiako oinarrizko kontzeptuak. Datuen bilketa, irudikapena eta interpretazioa. Iraganeko eta egungo migrazio-mugimenduak. Erronka demografikoak gaur egungo munduan.*</p>

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
			C. <u>KONPROMISO ZIBIKOA</u> C7. Bizi-zikloak, aisialdiaren erabilera eta kontsumo-ohiturak: egungo eta iraganeko gizarteetako bizimoduetan dauden desberdintasunak eta aldaketak.
7. <u>Talde-identitatearen jatorria eta analisi kritikoa</u>	7.3. Ondarea babesteko beharra argudiatzea, identitate ezberdinen oinarri gisa onartuz. (C4)	KE3, KPSII1, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2.	C. <u>KONPROMISO ZIBIKOA</u> C4. Bizikidetzatza zibikoa eta kultura demokratikoa. Gizarte zibilaren kide izatea eta inplikatzatza. Komunitate proiektuetan parte-hartzatza.
8. <u>Kultura-aniztasunaren aberastasuna aintzat hartzea diskriminazio oro saihesteko</u>	8.2. Aniztasun kulturala aintzat hartu eta elkarlana bultzatzen dut. (A16 C3)	HKK5, KE3, KPSII3, HK1, HK2, HK3, KAKK1.	A. <u>EGUNGO MUNDUAREN ERRONKAK</u> A16. Emakumeen eta nesken papera egungo gizarteetan: hezkuntzarako eskubidea, lana eta boterea eskuratzeko aukerak eta haien kontrako diskriminazio-egoerak munduan zehar. Generorolak eta horien isla gizartearen eta kulturaren esparru guztietan.* C. <u>KONPROMISO ZIBIKOA</u> C3. Toki-ingurunean eta ingurune globalean gaur egun dauden erronken eta arazozen aurrean interesa.

Arloa: **Hezkuntza Plastikoa**

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
2. <u>Arte-adierazpenen azterketa. (Norberarenak eta besteenak)</u>	2.2. Hainbat produkzio artistiko, norberarenak eta bere gisakoenak barne, modu gidatuan analizatzea, munduranzko begirada estetiko irekia garatuz eta aniztasuna errespetatuz. (A2 B1) 2.3. Errealitatearen, imajinarioaren eta produkzioaren artean dagoen prozesuaren garrantzia baloratzea, adierazpen-askatasunarekiko errespetuzko portaera erakutsiz, ikuspuntu inklusibotik. (A2 B1)	HKK1, ELK3, DK1, PSIIK3, HK1, HK3, KKAK1, KKAK2.	A. <u>PERTZEPZIOA, HAUTEMATE ESTETIKOA ETA ANALISIA</u> A2. IRUDIAREN ETA IKUSIZKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOAREN HIZKUNTZAREN ELEMENTU FORMALAK Ikusizko hizkuntza komunikazio-modu gisa. Ikusizko hizkuntzaren oinarriko elementuak: puntua, lerroa eta plano. Adierazpen- eta komunikazio-aukerak.* Ikusizko elementuak, kontzeptuak eta adierazpen-aukerak: forma, kolorea eta ehundura.*

Arloa: **Hezkuntza Plastikoa**

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
			<p>B. <u>SORKUNTZA ETA INTERPRETAZIOA</u></p> <p>B1. ADIERAZPEN ARTISTIKOA ETA GRAFOPLASTIKOA. IKUSIZKO ETA IKUS-ENTZUNEZKO IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA. TEKNIKAK ETA PROZEDURAK.</p> <p>Bi dimentsioko adierazpen grafiko-plastikoaren oinarrizko teknikak. Teknika lehorrak eta hezeak. Arteko erabilera eta adierazpen-ezaugarriak.*</p> <p>Hiru dimentsioko adierazpen grafiko-plastikoaren oinarrizko teknikak. Arteko erabilera eta adierazpen-ezaugarriak.*</p> <p>Ikus-entzunezko produkzio errazak bakarka edo taldean egiteko teknikak.</p>
<p>4. Talde-lana: planifikazio, diseinu eta ebaluazio faseak</p>	<p>4.1. Komunikazio-asmoa duten produkzioak modu kolaboratiboan eta sormenez garatzea, prozesu sortzailea planifikatuz eta zenbait rol bere gain hartuz prozesuaren etapetan zehar. (A1 C)</p> <p>4.2. Proiektu artistikoen elaborazio-prozesua eta azken emaitza erakustea, besteen iritzia baloratzuz. (A1 C)</p>	<p>HKK1, ELK2, STEM1, STEM3, STEM5, DK2, DK3, DK4, PSIIK3, PSIIK4, PSIIK5, HK3, EKK1, EKK2, EKK3, KKAK3, KKAK4.</p>	<p>A. <u>PERTZEPZIOA, HAUTEMATE ESTETIKOA ETA ANALISIA</u></p> <p>A1. ONDARE ARTISTIKOA ETA KULTURALA</p> <p>Ikusizko hizkuntza eta komunikazioa. Helburuak: informazioa, komunikazioa, adierazpena eta estetika. --Testuinguruak eta funtzioak.</p> <p>Ondare arkitektonikoa: forma geometrikoak artean eta ingurunean. Ikusizko eta ikus-entzunezko irudiak: irakurketa eta analisisa.</p> <p>Ondare artistikoa kontserbatzeko, babesteko eta ezagutarazteko beharra.</p> <p>C. <u>OROKORRAK</u></p> <p>Portaera-arauak eta jarrera positiboa proposamen grafiko-plastikoak, diseinukoak eta publizitatekoak eta argazkigintzakoak hartzean eta sortzean. Ikus-entzunezko hizkuntza eta multimedia, zenbait espazio kultural eta artistikotan, netiketa-arauak kontuan hartuz.*</p> <p>Aniztasunarekiko errespetua.</p> <p>Errorea ikasteko modua dela eta galtzea ere ikasteko modua dela onartzeko estrategiak.</p> <p>Ahalegina jomugak, helburuak... lortzeko metodo/bide gisa.</p> <p>Rolak modu kolaboratiboan hartzea.</p>

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
			<p>Ezagutu, errespetatu eta baloratu behar diren askotariko rolak daudela onartzeko eta ulertzeko estrategiak.</p> <p>Jarrera irekia.</p> <p>Autokonfiantza.</p> <p>Autokritika.</p> <p>Jakin-mina.</p> <p>Ekimena.</p> <p>Sentsibiltatea.</p> <p>Pentsamendu kritikoa.</p>

1.4. Deskriptore operatiboen glosarioa

Aurreko atalean erabilitako laburdurak kontsultatzeko, ondorengo taula honetan curriculumeko deskriptore operatiboen definizioak jaso ditugu:

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK ⁴
<p>1. Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia (HKK)</p>	<p>HKK1. Euskaraz eta gaztelaniaz ahoz, idatziz eta era multimodalean edo siglen bidez hitz egiten du, koherentziaz, zuzentasunez eta gizarte-testuinguruekiko egokitasunez, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzan eta errespetuz, informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai eta lotura pertsonalak eraikitzeke ere.</p> <p>HKK2. Pertsona-, gizarte-, hezkuntza- eta lanbide-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu jarrera kritikoz, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeke.</p> <p>HKK3. Hainbat iturritatik datorren informazioa, euskaraz eta gaztelaniaz, gero eta modu autonomoagoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, irakurketa-helburuen arabera, eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz; informazioa integratu eta ezagutza bihurtzen du, komunikatzeko, ikuspegi sortzaile, kritiko eta pertsonala hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.</p> <p>HKK4. Autonomiaz irakurtzen ditu bere adinerako egokiak diren hainbat lan euskaraz eta gaztelaniaz, bere gustu eta interesetara hobekien egokitzen direnak hautatuz; ondare literarioa esperientzia indibidual eta kolektiboaren bide pribilegiatutzat hartzen du; eta bere esperientzia biografikoa eta ezagutza literario eta kulturalak mugiarazten ditu, obren interpretazioa eraikitzeke eta partekatzeko eta gero eta konplexuagoak diren asmo literarioko testuak sortzeko.</p> <p>HKK5. Bere komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazkak elkarriketaren bidez konpontzearen eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak baztertuz, bai eta hizkuntzaren bidezko botere-gehiegikeriak ere, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa ere bultzatzeko eta euskararen ohiko erabilerarekiko jarrera asertiboa izateko.</p>

⁴ Deskriptore operatiboen definizioak curriculumetik bere horretan hartuak (77/2023 maiatzak 30).

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK
<p>2. Konpetentzia Eleaniztuna (KE)</p>	<p>KE1. Hizkuntza bat edo gehiago modu eraginkorrean erabiltzen ditu, familiako hizkuntzaz edo hizkuntzez eta hizkuntza ofizialez gain, bere komunikazio-premiei behar bezala eta egoki erantzuteko, bai bere garapenei eta interesei dagokienez, bai eremu pertsonaleko, sozialeko, hezkuntzako eta profesionaleko egoera eta testuinguruei dagokienez.</p> <p>KE2. Bere esperientzietatik abiatuta, bere ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzen du, eta beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan eskuratutako ezagutzak eta komunikazioa transferitzeko estrategiak erabiltzen ditu, eta konfiantzazko jarrera erakusten du komunikatzeko gaitasuna hobetzeko ikasteko duen konpetentzian.</p> <p>KE3. Ikastetxearen eta ingurunearen hizkuntza-aniztasuna onartzen du, aniztasun horrekiko errespetuzko eta enpatiazko jarrera erakusten du, eta hizkuntzak komunikabide eraginkortzat, kultura- ondareztat eta gizarte-kohesioa sustatzeko tresnatzat hartzen ditu.</p>
<p>3. Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako Konpetentzia (STEM)</p>	<p>STEM1. Arrazoiketa matematikoaren berezko metodo induktibo, deduktibo eta logiko batzuk erabiltzen ditu, baita metodo zientifikoaren arrazoiketa hipotetiko-deduktiboa ere egoera ezagunetan, eta problemak ebazteko hainbat estrategia hautatu eta erabiltzen ditu, jarraitutako soluzioak eta prozesua kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa izanez gero.</p> <p>STEM2. Pentsamendu zientifikoa erabiltzen du bere inguruan gertatzen diren sistema natural eta materialei buruzko prozesu eta gertaera batzuk ulertzeko eta azaltzeko, ezagutzan konfiantza bereganatuz garapenaren motor gisa, galderak planteatuz, eta hipotesiak egiaztatuz esperimazioaren eta ikerketaren bidez, tresna egokiak erabiliz, zehaztasunaren eta egiazkotasunaren garrantzia balioetsiz, eta eredu zientifikoarekiko ondorio esanguratsu eta koherenteren bat lortuz, zientziaren irismenari eta mugei buruzko jarrera kritikoa erakutsiz.</p> <p>STEM3. Proiektuak planteatzen eta garatzen ditu, eta, horretarako, hainbat prototipo edo eredu diseinatu, fabrikatu eta ebaluatzen ditu, premia edo arazo bati modu sortzailean eta kooperatiboan irtenbidea emango dioten produktuak sortzeko eta/edo erabiltzeko, talde osoaren parte-hartzea saiaturaz, sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan konponduz, ziurgabetasunaren aurrean egokituz eta iraunkortasunaren garrantzia baloratuz.</p> <p>STEM4. Prozesu, arrazoiketa, erakustaldi, metodo eta emaitza zientifiko, matematiko eta teknologikoen elementu garrantzitsuenak argi eta zehatz interpretatzen eta transmititzen ditu, hainbat formatutan (grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak,</p>

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK
	<p>sinboloak...) eta kultura digitala modu kritikoan aprobetxatzen du, hizkuntza matematiko-formala barne, etika eta erantzukizunez, ezagutza berriak partekatzeko eta eraikitzeko.</p> <p>STEM5. Osasun fisikoa eta mentala eta ingurumena babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzei ekiten die, eta etika- eta segurtasun-printzipioak aplikatzen ditu ingurune hurbila modu jasangarrian eraldatzeko proiektuak egitean, haren eragin globala baloratuz eta kontsumo arduratsua praktikatuz.</p>
<p>4. Konpetentzia Digitala (KD)</p>	<p>KD1. Interneten bilaketa aurreratuak egiten ditu (bilaketa-terminoen, formatuaren, gaurkotasunaren eta lizentziaren arabera), baliozkotasun-, kalitate-, gaurkotasun- eta fidagarritasun-irizpideak kontuan hartuta, informazioa modu kritikoan hautatu eta ulertzen du, modu esanguratsuan konbinatuz, eta modu ordenatuan artxibatuz, berreskuratu eta erreferentzia egiteko, jabetza intelektuala errespetatuz.</p> <p>KD2. Etengabeko ikaskuntzako bere ingurune pertsonal digitala kudeatzen eta erabiltzen du jatorrizko ezagutza eta eduki digitalak hainbat formatutan ekoizteko eta gordetzeko, atazaren edo beharren arabera dagozkion tresna digitalak erabilia, bai dauden edukiak berrerabilia, bai sortutako edukiei lizentziei buruzko ezagutza aplikatuta.</p> <p>KD3. Sare sozialen edo lineako komunitateen gisako tresnen eta/edo plataformen bidez parte hartzen eta laguntzen du, komunikatzeko, lankidetzan lan egiteko eta edukiak, datuak eta informazioa partekatzeko; horretarako, bere helburura ondoen egokitzen dena aukeratzen du, bere ekintzak, presentzia eta ikusgarritasuna modu arduratsuan kudeatzen ditu sarean, eta herriartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetsua gauzatzen du.</p> <p>KD4. Gailu digitalak babesten ditu, segurtasun- estrategiak eguneratzen ditu, haien pribatutasuna eta besteena ulertzen eta babesten ditu oro har, eta oinarritzko ezagutza du haien datuak biltzeko eta erabiltzeko moduari buruz, badaki bere burua eta beste batzuk ziberjazarpenetik babesten, eta ulertzen ditu teknologien erabilerrari lotutako osasun-arriskuak (ergonomia, mendekotasunak), eta ulertzen du teknologiak ingurumen-jasangarritasunean duen eragin positiboa eta negatiboa.</p> <p>KD5. Arazo tekniko posibleak eta gabeziak identifikatzen ditu, baliabideak, tresnak eta gaitasun digitala garatzeari dagokionez, eta irtenbidea ematen die; informatika-aplikazio errazak eta irtenbide teknologiko sortzaile eta jasangarriak garatzen ditu arazo zehatzak konpontzeko edo proposatutako erronkei erantzuteko; interesa erakusten du, eta teknologia digitalen bilakaeraren, garapen iraunkorraren eta erabilera etikoaren azpian dauden printzipio orokorrak eta logika ulertzen ditu.</p>

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK
<p>5. Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII)</p>	<p>KPSII1. Bere emozioak erregulatu eta adierazten ditu, eta, horretarako, baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta ikasteko asmoa eta motibazioa bilatzen ditu, edozein testuingurutan sortzen diren erronkak eta aldaketak modu konstruktiboan kudeatuz eta bere helburuekin harmonizatuz.</p> <p>KPSII2. Faktore sozialekin lotutako osasunerako arriskuak ezagutzen ditu, maila fisikoan eta mentalean bizi-ohitura osasungarriak finkatzeko, eta ikaskuntza sustatzen eta oztopatzen duten baldintza pertsonalak eta inguruneak identifikatzen ditu.</p> <p>KPSII3. Besteen ikuspegiak eta esperientziak modu proaktiboan ulertzen ditu, eta ikaskuntzan txertatzen ditu, talde-lanean parte hartzeko, zereginak eta erantzukizunak modu ekitatiboan banatuz eta onartuz eta estrategia kooperatiboak erabiliz.</p> <p>KPSII4. Bere ikaskuntza-prozesuari buruzko autoebaluazioak egiten ditu, informazioa baliozkotzeko, sostengatzeko eta kontrastatzeko eta ondorio garrantzitsuak ateratzeko iturri fidagarriak bilatuz.</p> <p>KPSII5. Epe ertainerako helburuak planifikatzen ditu eta atzeraelikadurako prozesu meta-kognitiboak garatzen ditu, ezagutza eraikitze prozesuan dituen akatsetatik ikasteko.</p>
<p>6. Herritartasunerako Konpetentzia (HK)</p>	<p>HK1. Bere nortasunaren dimentsio sozialari eta herritarrari buruzko ideiak aztertzen eta ulertzen ditu, bai eta identitatea zehazten duten gertaera sozial, historiko eta arauemaileei buruzkoak ere, eta arauak, enpatia, ekitatea eta espiritu konstruktiboa errespetatzen ditu besteekiko elkarreraginean, hainbat testuinguru sozioinstituzionaletan.</p> <p>HK2. Europako integrazio-prozesutik, Euskal Autonomia Estatututik eta giza eta haurren eskubideetatik datozen printzipioak eta balioak aztertzen eta onartzen ditu, eta, horretarako, Erkidegoko jardueretan parte hartzen du, hala nola erabakiak hartzean edo gatazkak konpontzean, jarrera demokratikoarekin, aniztasunarekiko errespetuarekin eta genero-berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, garapen iraunkorarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromisoarekin.</p> <p>HK3. Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etikoak ulertzen eta aztertzen ditu, norberaren eta besteen balioak kritikoki kontuan hartuz, eta bere iritzia garatuz, eztabaida moralari aurre egiteko elkarrizketarako, argudiatzeko, errespetuzko eta edozein diskriminazio edo indarkeriaren aurkako jarreraz.</p> <p>HK4. Jarduera lokal eta globalen arteko interdependentsia, ekodependentsia eta interkonexioko harreman sistemikoak barne hartzen ditu, eta modu kontzientean eta motibatuan hartzen du bizimodu jasagarria eta ekosozialki arduratsua.</p>

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK
<p>7. Ekintzailera Konpetentzia (EK)</p>	<p>EK1. Beharrak eta aukerak aztertzen ditu, eta erronkei zentzu kritikoarekin aurre egiten die, iraunkortasunaren balantzea eginez, ingurunean izan dezaketen eragina baloratuz, ideia eta irtenbide berritzaileak, etikoak eta jasangarriak aurkezte-ko, eremu pertsonalean, sozialean, kulturean eta ekonomikoan balioa sortzera bideratuta.</p> <p>EK2. Norberaren indarguneak eta ahuleziak ebaluatzen ditu, autoezagutzako eta autoeraginkortasuneko estrategiak erabiliz, eta ekonomiaren eta finantzen funtsezko elementuak ulertzen ditu, ekonomia- eta finantza-ezagutzak aplika-tzen dizkie jarduera eta egoera zehatzei, eta lankidetzako eta talde-lana erraztuko duten trebetasunak erabiltzen ditu, ekintzara esperientzia ekintzaile baliotsua eramango duten beharrezko baliabideak biltze-ko eta optimizatzeko.</p> <p>EK3. Ideia eta konponbide baliotsuak sortzeko prozesua garatzen du, eta erabakiak hartzen ditu, modu arrazoituan, planifikatzeko eta kudeatzeko estrategia arinak erabiliz. Egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten du, prototipo berritzaileak eta baliotzak sortzeko prozesua burutzeko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.</p>
<p>8. Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako Konpetentzia (KAKK)</p>	<p>KAKK1. Edozein garaitako ondare kultural eta artistikoaren funtsezko alderdiak ezagutu, kritikoki estimatu, errespetatu eta sustatzen ditu, eta bere nortasuna eraikitzeko kultura- eta arte-aniztasunari datzekion adierazpen-askatasuna eta aberastea baloratzen ditu.</p> <p>KAKK2. Gozatu, ezagutu eta aztertu autonomiaz ondareko adierazpen artistiko eta kultural nabarmenenen berezitasunak eta intenzionalitateak, haien hizkuntza eta elementu teknikoaren bidez, edozein bitarteko edo euskarritan.</p> <p>KAKK3. Ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta modu irekian adierazten ditu. Autoestimua, sormena eta pertenezko-sena garatzen ditu, adierazpen kultural eta artistikoaren bidez, enpatiaz eta lankidetzazko jarreraz.</p> <p>KAKK4. Interpretazioaren, exekuzioaren, inprobisazioaren eta konposizio musikalaren bidez produktu artistikoak eta kulturalak sortzeko oinarrizko baliabide/euskarri plastikoak, ikus-entzunezkoak, soinuak eta gorputzezkoak ezagu-tzen, hautatzen eta sormenez erabiltzen ditu. Eskaintzen dizkieten garapen pertsonal, sozial eta ekonomikorako aukerak identifikatzen ditu.</p>

1.5. Ikas-egoeraren denboralizazioa

“Gazteak baleki, zaharrak baleza” ikas-egoera pilotua 3. ebaluazioan egiteko diseinatu dut, Aste Santuko oporren ondorengo zortzi asteetan. Ikusi, hemen, 2023-2024 ikasturteko egutegia:

	ESKOLAK							DBH BAT	DBH	BATXILER 1. MAILA	BATXILER 2. MAILA	
	AL	AR	AZ	OG	OR	LA	IG					
I R A	4	5	6	7	8	9	10	17	17	7 Aurkezpena	7 Aurkezpena	7 Aurkezpena
	11	12	13	14	15	16	17			8 lehen eskola eguna Irailak 29 arte jardunaldi jarraitua	8 lehen eskola eguna	8 lehen eskola eguna
	18	19	20	21	22	23	24					
	25	26	27	28	29	30	1					
U R R	2	3	4	5	6	7	8	20	20	25, 26 1. INTRA 12: Pilar eguna 13: ZUBIA	18. 1. INTRA 12: Pilar eguna 13: ZUBIA	19. 1. INTRA 12: Pilar eguna 13: ZUBIA
	9	10	11	12	13	14	15					
	16	17	18	19	20	21	22					
	23	24	25	26	27	28	29					
A Z A	30	31	1	2	3	4	5	21	21	1: Domu Santu eguna	1: Domu Santu eguna	1: Domu Santu eguna
	6	7	8	9	10	11	12					
	13	14	15	16	17	18	19			15, 1 EBA	16, 1 EBA	
	20	21	22	23	24	25	26					
A B E	27	28	29	30	1	2	3	13	13	29, 30 1. EBA 6 eta 8 jai egunak 7: ZUBIA 23-8 Gabonak	6 eta 8 jai egunak 7: ZUBIA 20. 2. INTRA	6 eta 8 jai egunak 7: ZUBIA 21. 2. INTRA
	4	5	6	7	8	9	10			22, jantokirik ez, eskolak 11.15an amaitu		
	11	12	13	14	15	16	17					
	18	19	20	21	22	23	24					
U R T	25	26	27	28	29	30	31	18	18			
	1	2	3	4	5	6	7			24, 25 2 INTRA		
	8	9	10	11	12	13	14					
	15	16	17	18	19	20	21					
O S T	22	23	24	25	26	27	28	16	16			
	29	30	31	1	2	3	4			12-16 Aste Zuria	12-16 Aste Zuria	8, 2. EBA 12-16 Aste Zuria
	5	6	7	8	9	10	11					
	12	13	14	15	16	17	18					
M A R	19	20	21	22	23	24	25	16	16			
	26	27	28	29	1	2	3			6, 7 2. EBA 11-22 Euskera Hamabostaldia	28, 2 EBA 11-22 Euskera Hamabostaldia	11-22 Euskera Hamabostaldia 25-29 Aste Santua 21, 3. INTRA
	4	5	6	7	8	9	10			25-29 Aste Santua		
	11	12	13	14	15	16	17			1-5 Pazko Astea	1-5 Pazko Astea	1-5 Pazko Astea
A P I	18	19	20	21	22	23	24	17	17			
	25	26	27	28	29	30	31			1-5 Pazko Astea	17, 3 INTRA	
	1	2	3	4	5	6	7					
	8	9	10	11	12	13	14					
M A I	15	16	17	18	19	20	21	22	22	1 jai eguna	1 jai eguna	1 jai eguna 10 GAI / EZ GAI eta azken klase eguna
	22	23	24	25	26	27	28					13-17 OHIKO AZTERKETAK 20 OHIKO EBALUAZIOA eta eskolen jarraipena 31 arte (barne)
	29	30	1	2	3	4	5			15, 16 3. INTRA 22, 23 3. INTRA		
	6	7	8	9	10	11	12					
E K A	13	14	15	16	17	18	19	15	0	Ekainak 3tik jardunaldi jarraitua 21 azken eskola-eguna, jantokirik ez	31 azken eskola-eguna 3-7 OHIKO AZTERKETAK 10, OHIKO EBALUAZIOA	3-7 EZOHIKO AZTERKETAK 11, EZOHIKO EBALUAZIOA
	20	21	22	23	24	25	26			19, 20 3. EBA	13-19 EZOHIKO AZTERKETAK	
	27	28	29	30	31	1	2					
	3	4	5	6	7	8	9					
A S T	10	11	12	13	14	15	16					
	17	18	19	20	21	22	23					
A S T	24	25	26	27	28	29	30					
								175	160			

APIRILA	1	2	3	4	5	6	7	1. ASTEA	Hasierako fasea
	8	9	10	11	12	13	14		
	15	16	17	18	19	20	21		
MAIATZA	22	23	24	25	26	27	28	3. ASTEA	Garapen-fasea
	29	30	1	2	3	4	5		
	6	7	8	9	10	11	12		
	13	14	15	16	17	18	19		
	20	21	22	23	24	25	26		
A S T	27	28	29	30	31			8. ASTEA	Azken fasea

Bi arrazoi daude ikas-egoera pilotuaren iraupena zortzi astekoa izateko: batetik, aurreikusi dugu proposatu ditugun jarduerak gauzatzeko denbora-tarte hori egokia dela; eta, bestetik, denbora utzi nahi dugu ikasturtea amaitu aurretik eremua osatzen duten arloetan beste gai batzuk lantzeko –Euskara eta Literatura arloan, esaterako, liburu baten irakurketa dialogikoa egiteko–. Azkenik, ikas-egoerak ikastetxetik kanpoko landa-lana izango duenez, eguraldiari begira ere onuragarria izan daiteke 3. ebaluazioan egitea.

1.6. Ikas-egoera antolatzeako taldeak

Ikas-egoerak, oro har, talde txikitan garatuko dituzte ikasleek. DBHko 1. mailako gure taldeek 24-25 ikasle dituztenez, lau taldeak osatuko ditugu, lortu nahi ditugun helburuak lortzeko kopuru egokia delako. Beraz, ikasgela bakoitzean 4 ikasle osatutako 6 talde izango ditugu.

Hala ere, ikas-egoeran ikasleak ez dira talde berean arituko denbora guztian; izan ere, taldekatze ezberdinak izango ditugu jarduera-motaren arabera:

- Oinarrizko jakintzak azaltzeko, talde handian egingo dugu orokorrean. Hala ere, ikasleek banaka jorratuko dituzte zenbait eduki garatzeko eta berrikusteko ariketak.
- Ikasleek talde txikitan edota banaka egingo dituzte azken ekoizpena osatzeko jarduerak, hala nola testuinguru berriak hautatzea, ikertzea, eta sortzea. Garapen-fasearen bukaeran, ikasleak talde txikitan elkartuko dira betiere, emaitzak elkarrekin aztertzeko eta ekoizpena osatzeko.
- Azken ekoizpenaren aurkezpena talde handian izango da: talde txiki bakoitzak sortutako lana azaldu ondoren, denon artean iruzkindu eta ondorioak aterako ditugu.

Aurrerago, "Jardueren sekuentzia garatua" izeneko atalean, jarduera bakoitzaren ondoan taldekatzea zehaztuko dut, kode hau erabiliz:

2. JARDUEREN SEKUENTZIA LABURRA

2.1. Jardueren aurkibidea

Honako hauek dira "Gazteak baleki, zaharrak baleza" ikas-egoera pilotuaren jarduerak⁵:

Hasierako fasea

1. JARDUERA. Jarduera motibagarria Euskara eta Literatura Geografia eta Historia Hezkuntza Plastikoa

2. JARDUERA. Ikas-egoeraren aurkezpena eta lan-plana Euskara eta Literatura Geografia eta Historia Hezkuntza Plastikoa

Garapen-fasea

3. JARDUERA. Erakusketa-aretoari bisita birtuala Hezkuntza Plastikoa

-erakusketarako produktuen planifikazioa: horma-irudiak eta baserrien maketak

4. JARDUERA. Lurraren irudikapena Geografia eta Historia

-nola murrizten den errealitatea mapetan

-koordinatu geografikoak eta puntu baten posizio zehatza

5. JARDUERA. Gure lan-eremuaren mapa Geografia eta Historia

6. JARDUERA. Gure lan-eremuaren maketak Hezkuntza Plastikoa

7. JARDUERA. Paisaiaren geruzak Geografia eta Historia

-erliebea

-klima

-lurralde-antolakuntza: demografia, sektore ekonomikoak, mugikortasuna

-naturaren aniztasuna

8. JARDUERA. Elkarrizketetarako gidioak Euskara eta Literatura Geografia eta Historia

-gure lan-eremuan aztertuko ditugun geruzak eta horretarako galderak

9. JARDUERA. Aditz-laguntzaileak Euskara eta Literatura Hezkuntza Plastikoa

-kontzeptu orokorrak: aditz-motak, aditzaren aspektua eta aditz-laguntzaileak

-aditz-sistemak: nor, nor-nork, nor-nori eta nor-nori nork

-aditz-sistemak ulertzeko komikia

-sistema erabilienak orainaldi eta lehenaldian

⁵ Parentesi artean, jarduera bakoitza zein arlori dagokion adierazi dut: Euskara eta Literatura, Geografia eta Historia, edota Hezkuntza Plastikoa.

10. JARDUERA. Deskribapen-testuak I Euskara eta Literatura Geografia eta Historia

-deskribapen-testuen egitura: paragrafoen antolaketa

-deskribapen testuetako hizkuntza-elementuak: adjektiboak eta testu-antolatzaileak

11. JARDUERA. Landa-lana, elkarrizketak Euskara eta Literatura Geografia eta Historia Hezkuntza Plastikoa

-elkarrizketak, galdetegia eta gogoeta-irudia

12. JARDUERA. Gure lan-eremua geruzaz geruza Geografia eta Historia Hezkuntza Plastikoa

-gure lan-eremuaren erliebearen, klimaren, demografiaren, sektore ekonomikoen eta mugikortasunaren inguruko informazioaren adierazpena grafikoen bidez

13. JARDUERA. Gizakiak lurra antolatzeko erabiltzen dituen ereduak Geografia eta Historia

-hiri-antolamendua

-gaur egungo landa-ingurunea

14. JARDUERA. Gure lan-eremuaren antolamendua Geografia eta Historia

-landa-inguruneen hustea

-landa-inguruneei eusteko estrategiak

15. JARDUERA. Deskribapen-testuak II Euskara eta Literatura

Amaierako fasea

16. JARDUERA. Ahozko aurkezpenak. Euskara eta Literatura Geografia eta Historia Hezkuntza Plastikoa

17. JARDUERA. Erakusketa. Euskara eta Literatura Geografia eta Historia Hezkuntza Plastikoa

18. JARDUERA. Zer ikasi dugu? Euskara eta Literatura Geografia eta Historia Hezkuntza Plastikoa

2.2. Jardueren curriculum-plangintza

Hurrengo orrialdeko taulari "Curriculum-plangintza" deitu diot: bertan, ikas-egoerako jarduerak eta lantzen dituzten curriculumeko oinarritzko jakintzak lotu ditut. Eremuka lan egiteko ikas-egoerak sortzean, garrantzitsua iruditzen zait lotura hau modu argian eta bisualean adieraztea, asko laguntzen baitu arlo bakoitzean landuko diren oinarritzko jakintzen koordinazioa egiteko.

Ez dugu ahaztu behar eremukako antolakuntzan ezinbestekoa dela oinarritzko jakintzen sekuentziazioa koordinatzea. Hori bi norabidetan egin beharko dugu: batetik, mintegietan, arlo bakoitzaren barruan, etapari dagozkion oinarritzko jakintzak mailaka banatu beharko ditugu (gure etaparen kasuan, erabaki zein oinarritzko jakintza landuko diren DBHko 1. mailan eta zein DBHko 2.

mailan); bestetik, ELBak⁶ ikas-egoerak sortzean arloen arteko oinarrizko jakintzak uztartu beharko ditu, eta, horretarako, "Curriculum-plangintza" delako taula hau oso lagungarria iruditzen zait.

Arloa:

Euskara eta Literatura

JARDUERAK	OINARRIZKO JAKINTZAK								
	A. HIZKUNTZAK ETA BEREN HIZTUNAK	B. KOMUNIKAZIOA							C. HIZKUNTZARI BURUZKO GOGOETA
		B1.	B2.	B3.	B4.	B5.	B6.	B7.	
1. JARDUERA. Jarduera motibagarria	●	●	●		●				
2. JARDUERA. Ikas-egoeraren aurkezpena eta lan-plana		●	●		●			●	
8. JARDUERA. Elkarrizketetarako gidoiak -gure lan-eremuan aztertuko ditugun geruzak eta horiei buruzko galderak	●	●	●	●	●				
9. JARDUERA. Aditz-laguntzaileak -kontzeptu orokorrak: aditz-motak, aspektua eta aditz-laguntzaileak -aditz-erregimenak: nor, nor-nork, nor-nori eta nor-nori nork -aditz-erregimenak ulertzeko komikia -aditz-erregimen erabilienak orainaldi eta lehenaldian		●	●	●			●		●
10. JARDUERA. Deskribapen-testuak I -deskribapen-testuetako egitura: paragrafoen antolaketa -deskribapen testuetako hizkuntza-elementuak: adjektiboak eta testu-antolatzaileak		●	●	●			●		●
11. JARDUERA. Landa-lana, elkarrizketak -elkarrizketak, galdetegia eta gogoeta-irudia	●	●	●		●				
15. JARDUERA. Deskribapen-testuak II		●	●	●		●	●		●

⁶ Deskriptore operatiboen definizioak curriculumetik bere horretan hartuak (77/2023 maiatzak 30).

OINARRIZKO JAKINTZAK									
JARDUERAK	A. HIZKUNTZAK ETA BEREN HIZTUNAK	B. KOMUNIKAZIOA							C. HIZKUNTZARI BURUZKO GOGOETA
		B1.	B2.	B3.	B4.	B5.	B6.	B7.	
16. JARDUERA. Ahozko aurkezpenak	●	●	●	●	●		●		●
17. JARDUERA. Erakusketa					●			●	
18. JARDUERA. Zer ikasi dugu?	●	●	●	●	●		●	●	●

Arloa:

Geografia eta Historia

OINARRIZKO JAKINTZAK															
JARDUERAK	A. EGUNGO MUNDUAREN ERRONKAK										B. GIZARTEA ETA LURRALDEAK		C. KONPROMISO ZIBIKOA		
	A2.	A3.	A4.	A5.	A7.	A10.	A11.	A12.	A13.	A16.	B3.	C3.	C4.	C5.	C7.
1. JARDUERA. Jarduera motibagarria					●	●						●	●	●	●
2. JARDUERA. Ikas-egoeraren aurkezpena eta lan-plana												●	●		
4. JARDUERA. Lurraren irudikapena -nola murrizten den errealitatea mapetan -koordinatu geografikoak eta puntu baten posizio zehatza	●	●	●												
5. JARDUERA. Gure lan-eremuaren mapa	●	●	●	●											
7. JARDUERA. Paisaiaren geruzak -erliebea -klima -lurralde-antolakuntza: demografia, sektore ekonomikoak, mugikortasuna -naturaren aniztasuna	●	●	●	●	●						●			●	●
8. JARDUERA. Elkarriketarako gidoiak -gure lan-eremuan aztertuko ditugun geruzak eta horiei buruzko galderak											●				
10. JARDUERA. Deskribapen-testuak I -deskribapen-testuetako egitura: paragrafoen antolaketa -deskribapen testuetako hizkuntza-elementuak: adjektiboak eta testu-antolatzaileak												●	●		

OINARRIZKO JAKINTZAK															
JARDUERAK	A. EGUNGO MUNDUAREN ERRONKAK										B. GIZARTEA ETA LURRALDEAK	C. KONPROMISO ZIBIKOA			
	A2.	A3.	A4.	A5.	A7.	A10.	A11.	A12.	A13.	A16.	B3.	C3.	C4.	C5.	C7.
11. JARDUERA. Landa-lana, elkarrizketak -elkarrizketak, galdetegia eta gogoeta-irudia							●	●	●	●		●	●		
12. JARDUERA. Gure lan-eremua geruzaz geruza -gure lan-eremuaren erliebearen, klimaren, demografiaren, sektore ekonomikoen eta mugikortasunaren inguruko informazioaren adierazpena grafikoaren bidez	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●
13. JARDUERA. Gizakiak lurra antolatzeke erabiltzen dituen ereduak -hiri-antolamendua -gaur egungo landa-ingurunea	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●
14. JARDUERA. Gure lan-eremuaren antolamendua -landa-inguruneen hustea -landa-inguruneei eusteko estrategiak					●	●	●	●	●			●			
16. JARDUERA. Ahozko aurkezpenak					●	●						●	●	●	●
17. JARDUERA. Erakusketa					●	●						●	●	●	●
18. JARDUERA. Zer ikasi dugu?	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●

Arloa:


Plastika

OINARRIZKO JAKINTZAK				
JARDUERAK	A. PERTZEPZIOA, HAUTEMATE ESTETIKOA ETA ANALISIA		B. SORKUNTZA ETA INTERPRETAZIOA	C. OROKORRAK
	A1.	A2.	B1.	
1. JARDUERA. Jarduera motibagarria	●			●
2. JARDUERA. Ikas-egoeraren aurkezpena eta lan-plana				●
3. JARDUERA. Erakusketa-aretoari bisita birtuala -erakusketarako produktuen planifikazioa: horma-irudiak eta baserrien maketak	●	●		●

JARDUERAK	OINARRIZKO JAKINTZAK			
	A. PERTZEPZIOA, HAUTEMATE ESTETIKOA ETA ANALISIA		B. SORKUNTZA ETA INTERPRETAZIOA	C. OROKORRAK
	A1.	A2.	B1.	
6. JARDUERA. Gure lan-eremuaren maketak	●	●	●	●
9. JARDUERA. Aditz-laguntzaileak -aditz-erregimenak ulertzeko komikia		●	●	●
11. JARDUERA. Landa-lana, elkarrizketak -elkarrizketak, galdetegia eta gogoeta-irudia			●	●
12. JARDUERA. Gure lan-eremua geruzaz geruza -gure lan-eremuaren erliebearen, klimaren, demografiaren, sektore ekonomikoaren eta mugikortasunaren inguruko informazioaren adierazpena grafikoen bidez		●	●	●
16. JARDUERA. Ahozko aurkezpenak	●	●		●
17. JARDUERA. Erakusketa				●
18. JARDUERA. Zer ikasi dugu?	●	●	●	●

2.3. Jardueren denboralizazioa

Hurrengo orrialdeko grafikoan adierazi ditut jardueren iraupena (saio-kopurua) eta noiz egingo dugun jarduera bakoitza. Ikas-egoera lantzeko, orotara, zortzi aste erabiliko ditugu. Aste horietako bakoitzean zazpi saio ditugu: Euskara eta Literaturako hiru, Geografia eta Historiako beste hiru eta Hezkuntza Plastikoko bat. Beraz, denera 56 saio izango ditugu ikas-egoera lantzeko. Grafikoa ondo ulertzeko, aurretik azalduko dut zer esan nahi duten koloreek eta zenbakiek. Hona hemen bi adibide eta azalpentxoak:



- a)** Inguruko koadroaren koloreak esan nahi du jarduera horrek zein jakintzagai lantzen duen: 2. jarduerarekin Euskara eta Literatura, Geografia eta Historia eta Hezkuntza Plastikoa lantzen dira; 3. jarduerarekin, aldiz, Hezkuntza Plastikoa bakarrik lantzen da.
- b)** Biribilean beltzez adierazi dut jardueraren saio-kopurua. Kolorez, saio horiek zein jakintzagaitakoak izango diren: 2. jarduera egiteko Euskara eta Literaturako saio bat eta Geografia eta Historiako beste bat erabiliko ditugu; 3. jarduerarako, berriz, Hezkuntza Plastikoko saio bakarra.

Hasierako fasea	1. ASTEA	1. JARDUERA (Jarduera motibagarria) 4 saio 2 + 2	2. JARDUERA (Ikas-egoeraren aurkezpena eta lan-plana) 2 saio 1 + 1	3. JARDUERA (Erakusketa-aretoari bisita birtuala) saio 1 1	
Garapen-fasea	2. ASTEA	4. JARDUERA (Lurraren irudikapena) 3 saio 3	9. JARDUERA (Aditz-laguntzaileak) 4 saio 3 + 1		
	3. ASTEA	5. JARDUERA (Gure lan-eremuaren mapa) 5 saio 5	8. JARDUERA (Elkarrizketetarako gidoiak) 2 saio 2	10. JARDUERA (Deskribapen-testuak I) 2 saio 2	6. JARDUERA (Gure lan-eremuaren maketak sortu) 4 saio 4
	4. ASTEA		11. JARDUERA (Landa-lana: elkarrizketak) 3 saio 2 + 1		
	5. ASTEA	7. JARDUERA (Paisaiaren geruzak) 3 saio 3	15. JARDUERA (Deskribapen-testuak II) 5 saio 5		
	6. ASTEA	12. JARDUERA (Gure lan-eremua geruzaz-geruzaz) 6 saio 5 + 1	16. JARDUERA (Ahozko aurkezpenak) 4 saio 4		
	7. ASTEA		13. JARDUERA (Gizakiak lurra antolatzeko erabiltzen dituen ereduak) saio 1 1		
	8. ASTEA	14. JARDUERA (Gure lan-eremuaren antolamendua) saio 1 1	17. JARDUERA (Erakusketa) 4 saio 2 + 2	18. JARDUERA (Zer ikasi dut?) 2 saio 1 + 1	
Amaietako fasea					

2.4. Jardueren ebaluazioa

Hurrengo taula honetan, jarduerak ebaluatzeko tresnak eta irizpideak jaso ditut, Euskara eta Literatura arloari dagozkionak. Beste bi arloen ebaluazioa zehazteko, ezinbestekoa zait arlo horietako irakasleekin elkarlanean aritzea, eta, beraz, hori ez dut lan honetan garatuko.

Arloa: **Euskara eta Literatura**

JARDUERAK	LORPEN-ADIERAZLEAK	EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKATZEN DUTEN K. E.
1. JARDUERA. Jarduera motibagarria	-Euskararekiko eta euskal kulturaren transmisioarekiko jarrera proaktiboa eta afektiboa du.	-Behaketa	-Konpetentzia eleaniztuna (1)
2. JARDUERA. Ikas-egoeraren aurkezpena eta lan-plana	-Hainbat iturritatik datorren informazioa eskema propioetan antolatzen du.	-Lan-plana eta kontratua	-Informazio fidagarria hautatzea. Jabetza-intelektualarekiko errespetua (6)
8. JARDUERA. Elkarrizketetarako gidoiak -gure lan-eremuko aztertuko ditugun geruzak eta horiei buruzko galderak	-Ahozko testu errazak ulertzen ditu. Gai nagusia eta igorlearen asmoa identifikatzen ditu.	-Kontrol-zerrenda	-Ahozko ulermena (2)
9. JARDUERA. Aditz-laguntzaileak -kontzeptu orokorrak: aditzaren motak, aspektua eta aditz-laguntzaileak -aditz-sistemak: nor, nor-nork, nor-nori eta nor-nori nork -aditz-sistemak ulertzeko komikia -sistema erabilienak orainaldi eta lehenaldian	-Testu idatziak koherentziaz, kohesioz, egokitasunez, zehaztasun lexikoz eta zuzentasun ortografiko eta gramatikalez idazten ditu.	-Kontrol-orriak: ariketak + komikia	-Idatzizko ekoizpena (5)
10. JARDUERA. Deskribapen-testuak I -deskribapen-testuetako egitura: paragrafoen antolaketa -deskribapen testuetako hizkuntza-elementuak: adjektiboak eta testu-antolatzaileak	-Testu idatziak ulertzen ditu. Gai nagusia identifikatzen du. -Kanalaren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzen ditut, baita erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ere.	-Kontrol orriak: ariketak	-Idatzizko ulermena (4)
11. JARDUERA. Landa-lana, elkarrizketak -elkarrizketak, galdetegia eta gogoeta-irudia	-Euskararekiko eta euskal kulturaren transmisioarekiko jarrera proaktiboa eta afektiboa du.	-Behaketa autoebaluazio kontrol zerrenda	-Konpetentzia eleaniztuna (1)

JARDUERAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKATZEN DUTEN K. E.
15. JARDUERA. Deskribapen-testuak II	<ul style="list-style-type: none"> -Testu idatzi eta multimodal errazak planifikatzeko zirriborroak idazten ditu. -Testu idatziak koherentziaz, kohesioz, egokitasunez, zehaztasun lexikoz eta zuzentasun ortografiko eta gramatikalez idazten ditu. -Hizkera ez-sexista eta ez-diskriminatzailea erabiltzen du ingurune analogiko eta digitaletan. -Azken testua berrikusi, zuzendu eta zabaltzen du. 	-Idatzizko produkzioak: errubrikak	-Idatzizko ekoizpena (5)
16. JARDUERA. Ahozko aurkezpenak	<ul style="list-style-type: none"> -Ahozko narrazio eta azalpen errazak egiten ditu, ahozko eta hitzik gabeko erregistro eta baliabide egokiekin. -Ahozko interakzio informal eta formaletan parte hartzen du. Aktiboki eta errespetuz entzuten du. 	-Errubrika eta koebaluazio kontrol-zerrenda	-Ahozko ekoizpena (3)
17. JARDUERA. Erakusketa	-Euskararekiko eta euskal kulturaren transmisioarekiko jarrera proaktiboa eta afektiboa du.	-Behaketa	-Konpetentzia eleaniztuna (1)
18. JARDUERA. Zer ikasi dut?	-Hainbat euskarritan eta hainbat gairi buruzko ikerketa-lanak egiten ditut.	-Autoebaluazio-errubrika	-Informazio fidagarria hautatzea. Jabetza-intelektualarekiko errespetua (6)

3. JARDUEREN SEKUENTZIA GARATUA

Hasierako fasea

1. JARDUERA

Jarduera motibagarria

4 saio
2 + 2

Getxoko Andra Mari auzoan dagoen haize-errotak izena ematen dio gure institutuari: Aixerrota. Baina, ba al dakite ikasleek zergatik dagoen haize-errota bat bertan, Galeako itsaslabarraren parean? Ezagutzen dute beren familiek Aixerrotaren historia? Eta institutuko irakasleok? Ikerketa-lantxo hori izango da gure ikas-egoeraren abiapuntua.

2. JARDUERA

Ikas-egoeraren aurkezpena eta lan-plana

2 saio
1 + 1

Ikas-egoera aurkezteko, Hizkuntza- eta gizarte-eremuko irakaslea eta Hezkuntza Plastika arloko irakaslea elkartuko gara. Ikasleei informazio garrantzitsua jakinaraziko diegu: zer lan egingo duten, nola egingo duten, zer ebaluatuko dugun eta nola ebaluatuko dugun. Horretarako, lan-plana azaldu eta helaraziko diegu.

Ikusi materiala:
1. ERANSKINA

Lan-planean, lehendabizi, ikas-egoeraren azken ekoizpenaren berri emango diegu: Getxoko Andra Mari auzoari buruzko erakusketa antolatuko dugu Getxoko Kultur Etxean. Horretarako, ikasleek horma-irudiak, maketak, hitzalditxoak eta grabatutako elkarrizketak prestatuko dituzte.

DBHko 1. mailako ikasgela bakoitzeko ikasle-taldeak gure lan-eremuko, hots, Getxoko Andra Mari auzoko zatitxo bat aztertuko du. Helburu horrekin, ikasleek bertako baserrietako bizilagunei elkarrizketak egingo dizkiete eta horietan jasotako informazioan oinarrituko dira aurretik aipatutako lanak egiteko –horma-irudia, maketa, hitzalditxoa eta grabazioa–.

Hori azaldu ondoren, ikas-egoeraren egutegia azalduko dugu. Garrantzitsua da ikasleek ikas-egoera bere osotasunean ikustea eta denboran kokatzea, eta, horretarako, lagungarria da lanak aurkezteko epeak garbi izatea.

Azkenik, ikasleek ondo ezagutu eta barneratu behar dute ebaluazio-prozesua, eta, hori lortzeko, lan-kontratua erabiliko dugu. Kontratu horretan oso modu sinplifikatuan aztertuko eta adostuko ditugu arlo bakoitzeko ebaluazio-irizpideak.

8. JARDUERA

Elkarrizketetarako gidoiak

2 saio
2

Aurretik lan-eremua sei zatitan banatu dugu –sei baitira DBHko 1. mailako taldeak–. Zati bakoitzeko kontaktu bat daukagu: bertako baserri batean bizi den edo bizi izan zen pertsona bat. Jarduera honetan, ikasleek pertsona horri egiteko elkarrizketa prestatuko dute.

Hasteko, ikasleak lauko lantaldetan jarriko dira –5 edo 6 ikasgela bakoitzeko– eta irakasleak galdera hau egingo die: “Zer galdetuko diogu bizilagunari, gure lan-eremua hobeto ezagutzeko?”. Lehendabizi, lantaldeek ideia-jasa egingo dute.

Ondoren, irakasleak azalduko die elkarrizketa 5 edo 6 ataletan banatuko dugula –ikasgelako lantaldeen kopuruaren arabera– eta lantalde bakoitza atal batez arduratuko dela. Atal bakoitzak gai bat jorratuko du, eta gai horietako bakoitzak paisaiaren geruza bat aztertuko du. Honako gai hauek aztertuko dira:

- 1) baserria –eraikina bera– lehen eta orain
- 2) ingurune fisikoa –natura, klima, etab. –, lehen eta orain
- 3) familia –etxean eta inguruko etxeetan–, lehen eta orain
- 4) lanbideak lehen eta orain
- 5) ohiturak –ospakizunak, aisialdia, etab. –, lehen eta orain
- 6) mugikortasuna –garraiobideak eta bidaiak–, lehen eta orain

Jarraian, irakasleak galdera-sorta zabala erakutsiko die ikasleei –aurretik prestatutakoa eta kontaktuaren arabera, elkarrizketari etekin handiagoa ateratzeko–. Lantalde bakoitzean, egokitu zaien atalaren arabera, dagozkien galderak aukeratuko dituzte. Ondoren, talde handian, lantaldeek egindako sailkapena komentatuko dugu eta amankomunean ipiniko dugu. Bukatzeko, lantalde bakoitzak bere galderak ideia-jaseko galderekin osatuko ditu eta elkarrizketarako gidodia sortuko du.

9. JARDUERA

Aditz-laguntzaileak

4 saio
3 + 1

Aurretik aipatu dugun bezala, gure erakusketarako Getxoko Andra Mari auzoan egindako elkarrizketetan oinarritutako deskribapen-testuak sortuko ditugu. Batetik, idatzizkoak, horma-irudietarako; eta, bestetik, ahozkoak, erakusketan bertan egingo ditugun hitzalditxoetarako. Auzokideen kontakizunetatik abiatutako testu horietan, narrazioaren ekintzek berebiziko garrantzia izango dute, eta, ekintzok ondo adierazteko, asko erabiliko ditugu lehenaldiko zein orainaldiko aditzak. Horrexegatik, jarduera honetan euskaraz

erabiltzen ditugun aditz-laguntzaileen erregimenak aztertu eta landuko ditugu: NOR, NOR-NORK, NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK.

Hasteko, 1. ebaluazioan aditzari buruz ikasitakoa gogoratuko dugu talde handian:

Ikusi materiala:
2. ERANSKINA

Ondoren, talde handian eta banaka, aditz-laguntzaileei buruzko azalpenak eman eta ariketak egingo ditugu.

Ikusi materiala:
3. ERANSKINA

10. JARDUERA

Deskribapen-testuak I

2 saio
2

Jarduera honen helburua ikasleek erakusketarako ekoitziko dituzten testuetarako hizkuntza-baliabideak eskuratzea da. Horretarako, talde handian deskribapen-testuen ezaugarriak azalduko ditu irakasleak. Ondoren, talde txikietan, ikasleek deskribapen-testu bat aztertuko dute eta aurretik landutako ezaugarriak bilatuko dituzte.

Ikusi materiala:
4. ERANSKINA

11. JARDUERA

Landa-lana, elkarrizketak

3 saio
2 + 1

Elkarrizketa egiteko egunean, ikasgela bakoitza bere kontaktuarekin bilduko da institutuko liburutegian. Elkarrizketak ordubete inguruko iraupena izango du eta txandaka egingo dute ikasleek: lantalde bakoitzak, 8. jardueran prestatutako gidoia erabilita, kontaktuari galderak egin eta informazioa jasoko du. Horretarako, taldekideen artean honako zeregin hauek banatuko dituzte: galderak egin, elkarrizketa grabatu eta informazio esanguratsuen idatzita jaso.

Bitartean, gainerako lantaldeetako ikasleek elkarrizketa jarraituko dute eta bi lan egin beharko dituzte: galdetegi bat osatu eta elkarrizketak iradokitakoa islatu gogoeta-irudi batean.

15. JARDUERA

Deskribapen-testuak II

5 saio
5

Jarduera honetan, ikasleek idatzizko deskribapen-testuak sortuko dituzte. Horretarako, elkarrizketan jasotako informazioa eta 10. jardueran landutako hizkuntza-baliabideak erabiliko dituzte.

Lehenik eta behin, ikasleek banaka sortuko dituzte testuak –irakasleak zuzenketarako errubrikaren berri emango die eta elkarrekin adostuko dute–. Irakasleak zuzenketak egingo ditu eta akats orokorrak talde handian aztertu eta zuzenduko dituzte. Ondoren, ikasle bakoitzak bere testua zuzenduko du. Bukatzeko, lantaldeetan, partaide guztien testuak bateratu eta horma-irudian jartzeko prestatuko dituzte.

16. JARDUERA

Ahozko aurkezpenak

4 saio
4

Ikasleek ahozko eta irudi bidezko aurkezpenak prestatuko dituzte aurretik ikertutakoa azaltzeko. Aurkezpen horiek ikasgelan egingo dituzte, eta talde handian ebaluatuko dituzte bai irakasleak, bai ikaskideek, aurretik adostutako errubrikan oinarriturik.

Amaierako fasea

17. JARDUERA

Erakusketa

4 saio
2 + 2

Erakusketari hasiera emateko, ekitaldia antolatuko dugu Getxoko Kultur Etxean. Bertara gonbidatuko ditugu proiektuan parte hartu duten kontaktuak, eta ikasleen familiak eta Andra Mari auzoko biztanleak ere gonbidatuko ditugu. Ekitaldian, ikasle batzuek aurretik landutako ahozko aurkezpenak egingo dituzte.

18. JARDUERA

Zer ikasi dugu?

2 saio
1 + 1

Ikasgelan solasaldia antolatuko dugu ikasitakoari buruz hausnartzeko. Ikasle bakoitzak behin parte hartu beharko du gutxienez, eta besteek esandakoaren gainean ekarpenak egin. Bukatutakoan, ikasleek autoebaluazio-errubrika beteko dute.

4. ERANSKINAK

Eranskinen aurkibidea:

1. ERANSKINA. Ikas-egoeraren aurkezpena eta lan-plana.....	46
2. ERANSKINA. Aditza: aditz-laguntzaileak I.....	49
3. ERANSKINA. Aditza: aditz-laguntzaileak II.....	50
4. ERANSKINA. Deskribapen-testuak.....	72
5. ERANSKINA. Ariketen erantzunak.....	75

AZKEN PRODUKTUA: ERAKUSKETA GETXOKO KULTUR ETXEAN

- Gure lan-eremua sei zatitan banatuko dugu (zati bat DBHko 1. mailako ikasgela bakoitzeko).
- Ikasgela bakoitzeko ikasle-taldeak lan-eremuaren zatitxo bat aztertuko du (baserri bat, bertan bizitako pertsona baten bitartez).
- IKASGELA BAKOITZEAN HONAKO LAN HAUEK EGINGO DITUGU:

1 BASERRIAREN MAKETA



2 HORMA-IRUDIA

- lan-eremuaren mapa
- paisaiaren geruzen azterketa (grafiko bat talde bakoitzeko)
- deskribapen-testua (testu bat talde bakoitzeko)



3 HITZALDITXOA

Ahozko + irudi bidezko azalpena



4 TESTIGANTZA

Audacityrekin grabatutako elkarrizketa



EGUTEGIA: LANAK AURKEZTEKO EPEAK

Komikia

Probatxoa: aditz-laguntzaileak

Lan-eremuaren mapa

LANDA-LANA

Elkarrizketaren audioa

Probatxoa: paisaiaren geruzak

Idazlana: deskribapen-testua

Maketa

Ahozko aurkezpena

Horma-irudia

ERAKUSKETA

APIRILA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

MAIATZA

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

EBALUAZIOA. LAN-KONTRATUA: **Euskara eta Literatura**

KOMUNIKAZIOA		% 50
Elkarrizketak	Audioa: kontrol-zerrenda	% 10
Deskribapenak	Idazlana: errubrika	% 25
Ahozko aurkezpenak	Ahozkoa: errubrika (+ koebaluazio-errubrika)	% 15

HIZKUNTZAREN ERABILERA		% 20
Aditz-laguntzaileak	Probatxoa	% 20

JARRERA		% 30
Orokorra: begirunea, aditasuna, materiala ekartzea	Errubrika (+ autoebaluazio-errubrika)	% 10
Euskaraz mintzatzea, parte-hartzea		% 5
Koadernoak: ikas-egoeraren jarraipena	Behaketa	% 15


elkarrekin adostuak

ADITZA: aditz-laguntzaileak

GOGORATU


Perpausaren osagaiak

Perpausak bi osagai nagusi ditu: izen-sintagma (**IS**) eta aditz-sintagma (**AS**).




Aditza

Aditza aditz-sintagmaren osagai nagusia da eta **ekintza** edo gertaera adierazten du. Ondorengo sailkapen hau erabiliko dugu aditz-motak aztertzeko:




Aditz jokatuak



Ikas-egoera honetan euskaraz erabiltzen ditugun aditz-laguntzaileen erregimenak aztertuko eta landuko ditugu: NOR, NOR-NORK, NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK.

NOR

EURITAKOA \emptyset
(nor)



apurtu


ZEN - DA

NOR-NORK

HAIZEAK
(nork)



EURITAKOA \emptyset
(nor)



apurtu


ZUEN - DU



NOR-NORI


ANERI
(nori)

EURITAKOA \emptyset
(nor)



apurtu

ZITZAION - ZAIO




NOR-NORI-NORK

HAIZEAK
(nork)

ANERI
(nori)




EURITAKOA \emptyset
(nor)



apurtu


ZION - DIO





	NOR		NOR-NORK				NOR-NORI				NOR-NORI-NORK						
		NOR		NOR	NORK			NOR	NORI			NOR	NORI	NORK			
Orainaldia	ni	naiz	ni	NAU	T	nik		ni	NA	tzai	T / DA	niri	niri		T / DA	T	nik
	zu	zara	zu	ZAITU	ZU	zuk		zu	ZA	tzai zki	ZU	zuri	zuri		ZU	ZU	zuk
	hura	da	hura	DU	-	hark		hura	-	zai	O	hari	hari	DI (zki)	O	-	hark
	gu	gara	gu	GAITU	GU	guk		gu	GA	tzai zki	GU	guri	guri		GU	GU	guk
	zuek	zarete	zuek	ZAITU ZTE	ZUE	zuek		zuek	ZA	tzai zki	ZUE	te	zuei	zuei	ZUE	ZUE	zuek
	halek	dira	halek	DITU	(z)TE	halek		halek	-	zai zki	E	halei	halei		E	TE	halek


	NOR		NOR-NORK				NOR-NORI				NOR-NORI-NORK												
		NOR		NOR	NORK			NOR	NORI			NORK	NOR	NORI									
Lehenaldia	ni	nintzen	ni	NINDU	DA	n	nik	nien	nituen	ni	NIN	tzai	DA	n	niri	nik	N		DA	n	niri		
	zu	zinen	zu	ZINTU	ZU	n	zuek	zenuen	zenituen	zu	ZIN	tzai zki	ZU	n	zuri	zuek	ZEN		ZU	n	zuri		
	hura	zen	hura	(*)	-	en	hark	zuen	zituen	hura	ZI	tzai	O	n	hari	hark	Z	I (zki)	O	n	hari		
	gu	ginen	gu	GINTU	GU	n	guk	genuen	genituen	gu	GIN	tzai zki	GU	n	guri	guk	GEN		GU	n	guri		
	zuek	zineten	zuek	ZINTU ZTE	ZUE	n	zuek	zenuten	zenituzten	zuek	ZIN	tzai zki	ZUE	te	n	zuei	zuek	ZEN		ZUE	te	n	zuei
	halek	ziren	halek	(**)	(z)TE	n	halek	zuten	zituzten	halek	ZI	tzai zki	E	n	halei	halek	Z		E	te	n	halei	



	NOR		NOR-NORK				NOR-NORI				NOR-NORI-NORK							
		NOR		NOR	NORK			NOR	NORI			NOR	NORI	NORK				
Orainaldia	ni	naiz	ni	NAU	T	nik		ni	NA	tzai	T / DA	niri	niri		T / DA	T	nik	
	zu	zara	zu	ZAITU	ZU	zuk		zu	ZA	tzai zki	ZU	zuri	zuri		ZU	ZU	zuk	
	hura	da	hura	DU	-	hark		hura	-	zai	O	hari	hari	DI (zki)	O	-	hark	
	gu	gara	gu	GAITU	GU	guk		gu	GA	tzai zki	GU	guri	guri		GU	GU	guk	
	zuek	zarete	zuek	ZAITU ZTE	ZUE	zuek		zuek	ZA	tzai zki	ZUE	te	zuei	zuei		ZUE	ZUE	zuek
	halek	dira	halek	DITU	(z)TE	halek		halek	-	zai zki	E	halei	halei		E	TE	halek	

	NOR		NOR-NORK				NOR-NORI				NOR-NORI-NORK												
		NOR		NOR	NORK			NOR	NORI			NORK	NOR	NORI									
Lehenaldia	ni	nintzen	ni	NINDU	DA	n	nik	nuen	nituen	ni	NIN	tzai	DA	n	niri	nik	N		DA	n	niri		
	zu	zinen	zu	ZINTU	ZU	n	zuek	zenuen	zenituen	zu	ZIN	tzai zki	ZU	n	zuri	zuek	ZEN		ZU	n	zuri		
	hura	zen	hura	(*)	-	en	hark	zuen	zitu	hura	ZI	tzai	O	n	hari	hark	Z	I (zki)	O	n	hari		
	gu	ginen	gu	GINTU	GU	n	guk	genuen	genituen	gu	GIN	tzai zki	GU	n	guri	guk	GEN		GU	n	guri		
	zuek	zineten	zuek	ZINTU ZTE	ZUE	n	zuek	zenuten	zenituzten	zuek	ZIN	tzai zki	ZUE	te	n	zuei	zuek	ZEN		ZUE	te	n	zuei
	halek	ziren	halek	(**)	(z)TE	n	halek	zuten	zitzuten	halek	ZI	tzai zki	E	n	halei	halek	Z		E	te	n	halei	

NOR



Orainaldia

NOR	
	NOR
ni	naiz
zu	zara
hura	da
gu	gara
zuek	zarete
haiek	dira

Lehenaldia

NOR	
	NOR
ni	nintzen
zu	zinen
hura	zen
gu	ginen
zuek	zineten
haiek	ziren

Ariketak

1 Irakurri esaldiak eta bete hutsuneak dagozkien aditz-laguntzaileekin.

0. Amaia eta biok duela hamar urte hasi*ginen*..... hemen lanean.
1. Nire logelako leihotik Serantes mendia ikusten
2. Atzo oso goiz piztu gure herriko kale-argiak.
3. Neguan ez zikoinak etortzen elizako kanpandorrera.
4. Zu zenbat zenbat aldiz egon atzerrian?
5. Gu hartzaroan ez horrenbestetan elurretara joaten.
6. Nire aitona-amonak egunero ibiltzen kale horietan zehar.
7. Zu txikitan ez hartzaindegira gustura joaten.
8. Noiz geldituko gu lana egiteko?
9. Ez batere ideia ona lehengusinari bururatu zitzaion hura.
10. Zuek noiz etorri Getxoko Andra Mari auzora bizitzera?

2 Irakurri testua eta bete hutsuneak dagozkien aditz-laguntzaileekin.


“Duela bost aste etorri*ziren*..... bizitzera Markel eta Laura azken honen aitite-amamena izandako etxera, eta jadanik espiritu gaztez blaitu dutela iruditzen zaio Laurari.

Ingurura begiratzen du, harro. Tentuz aukeratutako IKEAko altzariak oreka perfektua osatzen dute etxearen erdigune den tximinia zaharrarekin. Leihoak dituen hormatik arin batean igaro du begirada Laurak; hobe horrela. Markelen amak ilusioz jositako gortinak deigarriegiak eta egongela txikiaren harmonia hausten dute. ‘Bah, denbora kontua izango', esaten dio Laurak bere buruari. Laster konbentzitu du Markel gortina berriak erostera joateko.

Tximiniak funtziona lezake, baina Laurak nahiago ditu berogailuak; garbiagoak Zaku bete egur ekarri zion aitak aurrekoan, eta ‘Tximinia erabiliko bazenute, etxe osoa berotuko luke besterik gastatu gabe’ esan zion. Zenbat gustatzen zaion egurra aitari. Haren aita arotza, agian horregatik izango da. Ustekabea, Markelek eta berak bota dituzten altzari zaharren artean aititek eginiko baten bat egon zitekeela otu zaio Laurari. ‘Lastima...’

‘Ondo gaude hemen...’, esan dio Laurak bere buruari. Etxeak hiru logela ditu; egongela, sukaldea eta komuna. Dena 60 metro karratutan. Langile-etxebizitza estua aitite-amama eta haien hiru seme-alabentzat, baina nahikoa Markelentzat eta berarentzat.”


3 Irakurri dugun kontakizunean gaur egungo bizimoduaren elementuak eta aurreko belaunaldikoak alderatzen dira. Bilatu testuan bi sasoiaren arteko konparazioak eta komentatu.



	NOR		NOR-NORK				NOR-NORI				NOR-NORI-NORK						
		NOR		NOR	NORK			NOR	NORI			NOR	NORI	NORK			
Orainaldia	ni	naiz	ni	NAU	T	nik		ni	NA	tzai	T / DA	niri	niri		T / DA	T	nik
	zu	zara	zu	ZAITU	ZU	zuk		zu	ZA	tzai zki	ZU	zuri	zuri		ZU	ZU	zuk
	hura	da	hura	DU	-	hark		hura	-	zai	O	hari	hari	DI (zki)	O	-	hark
	gu	gara	gu	GAITU	GU	guk		gu	GA	tzai zki	GU	guri	guri	↙ ↘	GU	GU	guk
	zuek	zarete	zuek	ZAITU ZTE	ZUE	zuek		zuek	ZA	tzai zki	ZUE	te	zuei	zuei	ZUE	ZUE	zuek
	halek	dira	halek	DITU	(z)TE	halek		halek	-	zai zki	E	halei	halei		E	TE	halek

	NOR		NOR-NORK				NOR-NORI				NOR-NORI-NORK												
		NOR		NOR	NORK			NOR	NORI			NORK	NOR	NORI									
Lehenaldia	ni	nintzen	ni	NINDU	DA	n	nik	nuen	nituen	ni	NIN	tzai	DA	n	niri	nik	N		DA	n	niri		
	zu	zinen	zu	ZINTU	ZU	n	zuek	zenuen	zenituen	zu	ZIN	tzai zki	ZU	n	zuri	zuek	ZEN		ZU	n	zuri		
	hura	zen	hura	(*)	-	en	hark	zuen	zitu	hura	ZI	tzai	O	n	hari	hark	Z	I (zki)	O	n	hari		
	gu	ginen	gu	GINTU	GU	n	guk	genuen	genituen	gu	GIN	tzai zki	GU	n	guri	guk	GEN	↙ ↘	GU	n	guri		
	zuek	zineten	zuek	ZINTU ZTE	ZUE	n	zuek	zenuten	zenituzten	zuek	ZIN	tzai zki	ZUE	te	n	zuei	zuek	ZEN		ZUE	te	n	zuei
	halek	ziren	halek	(**)	(z)TE	n	halek	zuten	zitzuten	halek	ZI	tzai zki	E	n	halei	halek	Z		E	te	n	halei	

NOR-NORK



Orainaldia

NOR-NORK			
	NOR	NORK	
ni	NAU	T	nik
zu	ZAITU	ZU	zuk
hura	DU	-	hark
gu	GAITU	GU	guk
zuek	ZAITU ZTE	ZUE	zuek
haiak	DITU	(z)TE	haiak

Lehenaldia

NOR-NORK						
	NOR	NORK			(*)	(**)
ni	NINDU	DA	n	nik	nuen	nituen
zu	ZINTU	ZU	n	zuk	zenuen	zenituen
hura	(*)	-	en	hark	zuen	zituen
gu	GINTU	GU	n	guk	genuen	genituen
zuek	ZINTU ZTE	ZUE	n	zuek	zenuten	zenituzten
haiak	(**)	(z)TE	n	haiak	zuten	zituzten

NOR-NORK: praktikatzeko taulak

4 Osatu taulak dagozkien aditz-laguntzaileekin. Ondorengo esaldi hauek lagungarriak izango zaizkizu: *Gaur nik zu ikusi...* / *Atzo nik zu ikusi...*

Orainaldia • *Gaur nik zu ikusi...*

	ni	zu	hura	gu	zuek	haiek
nik						
zuk						
hark						
guk						
zuek						
haiek						

Lehenaldia • *Atzo nik zu ikusi...*

	ni	zu	hura	gu	zuek	haiek
nik						
zuk						
hark						
guk						
zuek						
haiek						

NOR-NORK: praktikatzeko taulak beteta

5 Zuzendu aurreko orrialdeko taulak eta erreparatu aditz-laguntzaileak eratzeko patroiei. Zer ondorio atera ditzakezu?

Orainaldia • Gaur nik zu ikusi zaitut.

	ni	zu	hura	gu	zuek	haiek
nik		zaitut	dut		zaituztet	ditut
zuk	nauzu		duzu	gaituzu		dituzu
hark	nau	zaitu	du	gaitu	zaituzte	ditu
guk		zaitugu	dugu		zaituztegu	ditugu
zuek	nauzue		duzue	gaituzue		dituzue
haiek	naute	zaituzte	dute	gaituzte	zaituztete	dituzte

Lehenaldia • Atzo nik zu ikusi zintudan.

	ni	zu	hura	gu	zuek	haiek
nik		zintudan	nuen		zintuztedan	nituen
zuk	ninduzun		zenuen	gintuzun		zenituen
hark	ninduen	zintuen	zuen	gintuen	zintuzten	zituen
guk		zintugun	genuen		zintuztegun	genituen
zuek	ninduzuen		zenuten	gintuzuen		zenituzten
haiek	ninduten	zintuzten	zuten	gintuzten	zintuzteten	zituzten

Ariketak

6 Irakurri esaldiak eta bete hutsuneak dagozkien aditz-laguntzaileekin.


0. Etxekook azkenaldian zu ez**zaitugu**... ia inoiz ikusten.
1. Gaur nik hainbat gauza berri ikasi
2. Atzo guk zuek agurtu entrenamendua hasi aurretik.
3. Institutura etorri nintzen lehenengo aldian, oso ondo sentiarazi Ederrek eta zuk.
4. Joan den neguan zuk gu etxera gonbidatu
5. Herriak borroka galdu eraikitzaile boteretsuen aurka.
6. Batxilerreko ikasleek oso ondo tratatu zuek ipuinak kontatzera etorri direnean.
7. Euriak gu ez bakean utziko asteburu osoan.
8. Berangoko eskolan geundela nik zu ez ondo ezagutzen.
9. Guk atzo erabaki ona hartu
10. Saltzaileek berehala jaso postuak azoka amaitutakoan.

7 Irakurri testua eta bete hutsuneak dagozkien aditz-laguntzaileekin.

“Lan gehiegi egiten**du**..... Markelek azken boladan, lan gogor eta neketsua. La Naval lantegian hasi zenetik, etxera bueltatzean ez afaltzeko ere indarririk izaten. Goizean goiz hasi eta gaueko zortzi eta erdiak arte kable astunak gora eta behera garraiatzen eraikitzen ari diren itsasontzi berri batean. Pena ematen dio Laurari Markel ontziolan imajinatzeak, ordu luzez instalazio elektriko erraldoiaren tripetan galduta. Apetatsua lana Markelekin, hilabeteetan ez bere atea jo eta orain telebista ikusteko astirik ere ez dio uzten.

Laura udaberrian eta gabonetan egoten lanpetuen. Udaberrian ezkontzak, bataioak eta horrelakoak egiten , eta gabonetan haurren erreportajeak nagusi, gurasoek familia osoari egutegiak eta postalak oparitzeko erabiltzen dituzten horiek. Argazkigintza-estudioak ez du diru askorik ematen, baina Trapagaranen bertan dago, eta oinez joan daiteke egunero Laura.”

8 Nola imajinatzen duzu Laura eta Markelen eguneroko bizimodua? Komentatu.



Orainaldia	NOR		NOR-NORK				NOR-NORI				NOR-NORI-NORK							
		NOR		NOR	NORK			NOR	NORI			NOR	NORI	NORK				
ni	naiz		ni	NAU	T	nik		ni	NA	tzai	T / DA	niri	niri			T / DA	T	nik
zu	zara		zu	ZAITU	ZU	zuk		zu	ZA	tzai zki	ZU	zuri	zuri			ZU	ZU	zuk
hura	da		hura	DU	-	hark		hura	-	zai	O	hari	hari	DI (zki)		O	-	hark
gu	gara		gu	GAITU	GU	guk		gu	GA	tzai zki	GU	guri	guri			GU	GU	guk
zuek	zarete		zuek	ZAITU ZTE	ZUE	zuek		zuek	ZA*	tzai zki	ZUE	zuei	zuei			ZUE	ZUE	zuek
halek	dira		halek	DITU	(z)TE	halek		halek	-	zai zki	E	halei	halei			E	TE	halek

Lehenaldia	NOR		NOR-NORK				NOR-NORI				NOR-NORI-NORK								
		NOR		NOR	NORK			NOR	NORI			NORK	NOR	NORI					
ni	nintzen		ni	NINDU	DA	n	nik	n	n	n	nik	n	niri	nik	N		DA	n	niri
zu	zinen		zu	ZINTU	ZU	n	zuk	n	n	n	zuri	zuri	zuri	zuri	ZEN		ZU	n	zuri
hura	zen		hura	(*)	-	en	hark	n	n	n	hari	hari	hari	hari	Z	I (zki)	O	n	hari
gu	ginen		gu	GINTU	GU	n	guk	n	n	n	guri	guri	guri	guri	GEN		GU	n	guri
zuek	zineten		zuek	ZINTU ZTE	ZUE	n	zuek	n	n	n	zuei	zuei	zuei	zuei	ZEN		ZUE te	n	zuei
halek	ziren		halek	(**)	(z)TE	n	halek	n	n	n	halei	halei	halei	halei	Z		E te	n	halei

NOR-NORI



Orainaldia

NOR-NORI					
	NOR		NORI		
ni	NA	tzai	T / DA		niri
zu	ZA	tzai zki	ZU		zuri
hura	-	zai	O		hari
gu	GA	tzai zki	GU		guri
zuek	ZA	tzai zki	ZUE	te	zuei
haiek	-	zai zki	E		haiei

Lehenaldia

NOR-NORI					
	NOR		NORI		
ni	NIN	tzai	DA	n	niri
zu	ZIN	tzai zki	ZU	n	zuri
hura	ZI	tzai	O	n	hari
gu	GIN	tzai zki	GU	n	guri
zuek	ZIN	tzai zki	ZUE	te	n
haiek	ZI	tzai zki	E	n	haiei

NOR-NORI: praktikatzeko taulak

- 9 Osatu taulak dagozkien aditz-laguntzaileekin. Ondorengo esaldi hauek lagungarriak izango zaizkizu: *Gaur ni zuri laguntza eske joan...* / *Atzo ni zuri laguntza eske joan...*

Orainaldia • *Gaur ni zuri laguntza eske joan...*

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
ni						
zu						
hura						
gu						
zuek						
haiek						

Lehenaldia • *Atzo ni zuri laguntza eske joan...*

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
ni						
zu						
hura						
gu						
zuek						
haiek						

NOR-NORI: praktikatzeko taulak beteta

10 Zuzendu aurreko orrialdeko taulak eta erreparatu aditz-laguntzaileak eratzeko patroiei. Zer ondorio atera ditzakezu?

Orainaldia • Gaur ni zuri laguntza eske joan **natzaizu**.

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
ni		natzaizu	natzaio		natzaizue	natzaie
zu	zatzaizkit		zatzaizkio	zatzaizkigu		zatzaikie
hura	zait	zaizu	zaio	zaigu	zaizue	zaie
gu		gatzazkizu	gatzazkio		gatzazkizue	gatzazkie
zuek	zatzaizkide		zatzaizkiote	zatzaizkigute		zatzaizkiete
haiek	zaizkit	zaizkizu	zaizkio	zaizkigu	zaizkizue	zaizkie

Lehenaldia • Atzo ni zuri laguntza eske joan **nintzaizun**.

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
ni		nintzaizun	nintzaion		nintzaizuen	nintzaien
zu	zintzaizkidan		zintzaizkion	zintzaizkigun		zintzaizkien
hura	zitzaidan	zitzaizun	zitzaion	zitzaigun	zitzaizuen	zitzaien
gu		gintzaizkizun	gintzaizkion		gintzaizkizuen	gintzaizkien
zuek	zintzaizkidaten		zintzaizkioten	zintzaizkiguten		zintzaizkieten
haiek	zitzaizkidan	zitzaizkizun	zitzaizkion	zitzaizkigun	zitzaizkizuen	zitzaizkien

Ariketak

11 Irakurri esaldiak eta bete hutsuneak dagozkien aditz-laguntzaileekin:

0. Zuri zenbat aldiz apurtu **zaizkizu** betaurrekoak ikasturte honetan?
1. Goiko auzokideei askotan erortzen arropak gure balkoira.
2. Guri ez ondo iruditu atzo gertatutakoa.
3. Orain dela bost minutu Udane Pellori liburua itzultzera joan
4. Zuei atsedean hartzea komeni
5. Duela bi aste haiek guri bisitan etorri
6. Gaur ni laguntza eske joan zuri.
7. Gaur atsedenaldirian ni Mireni koaderno eskatzera hurbildu
8. Gu iazko oporretan zuri bisitan joan
9. Nire lagunak, aspertuta daudenean, niri hizketan hasten beti.
10. Zu txikitan beti gerturatzten neba nagusiari harekin jolasteko asmoz.

12 Irakurri testua eta bete hutsuneak dagozkien aditz-laguntzaileekin:

“Ia eguerdiko bezala, aita etorri **zaio** Laurari etxera. General Eléctrica lantegian erretiroa hartu zuenetik sukaldari-sena duela deskubritu, eta Laura eta Markeli ‘fundamentuzko janaria’ ekartzen die tuperretan.

Ordu bietatik lau eta erdiak bitartean estudioa itxita dagoela aprobetxatuz, Laurak eta aitak elkarrekin bazkaldu eta Bruno txakurrarekin paseo laburra egiten


Tuperren aitzakia izango ez balu ere, egunero etorriko litzateke aita San Andrés auzora. Hemen hazi zen azken finean, eta haurtzaroko oroitzapenak izaten gozo eta bizienak helduaroan; edo behintzat hori esaten denek.

Leihotik begira edo ate aurrean egoten diren alargun guztiak agurtu egiten ditu aitak banan-banan; guztien izenak ezagutzen ditu. ‘Agian nik ere ikasi beharko nituzke...’, bururatu

Laurari une batez. Gustatuko litzaioke auzokide gazteagoak izatea, baina aldatuko hori ere denborarekin, Markelen amak jositako gortinak bezala.”

13 Zer harreman dauka Laurak San Andréseko auzokideekin? Eta bere aitak? Ba al duzue harremanik bizilagunekin zure etxean?

14 “Haurtzaroko oroitzapenak izaten dira gozo eta bizienak helduaroan”. Entzun al duzu inoiz horrelako esaldirik zure inguruan? Bat zatoz baieztapen horrekin? Hausnartu.



Orainaldia	NOR		NOR-NORK				NOR-NORI				NOR-NORI-NORK					
		NOR		NOR	NORK			NOR	NORI			NOR	NORI	NORK		
ni	naiz	ni	NAU	T	nik		2	NA	tzai	T / DA	niri	niri		T / DA	T	nik
zu	zara	zu	ZAITU	ZU	zuk		zu	ZA	tzai zki	ZU	zuri	zuri		ZU	ZU	zuk
hura	da	hura	DU	-	hark		hura	-	zai	O	hari	hari	DI (zki)	O	-	hark
gu	gara	gu	GAITU	GU	guk		gu	GA	tzai zki	GU	guri	guri		GU	GU	guk
zuek	zarete	zuek	ZAITU ZTE	ZUE	zuek		zuek	ZA	tzai zki	ZUE	te	zuei	zuei	ZUE	ZUE	zuek
halek	dira	halek	DITU	(z)TE	halek		halek	-	zai zki	E	halei	halei		E	TE	halek

Lehenaldia	NOR		NOR-NORK				NOR-NORI				NOR-NORI-NORK										
		NOR		NOR	NORK			NOR	NORI			NORK	NOR	NORI							
ni	nintzen	ni	NINDU	DA	n	nik	nuen	nituen	ni	NIN	tzai	DA	n	niri	niri	N		DA	n	niri	
zu	zinen	zu	ZINTU	ZU	n	zuk	zenuen	zenituen	zu	ZIN	tzai zki	ZU	n	zuri	zuri	ZEN		ZU	n	zuri	
hura	zen	hura	(*)	-	en	hark	zuen	zituen	hura	ZI	tzai	O	n	hari	hari	Z	I (zki)	O	n	hari	
gu	ginen	gu	GINTU	GU	n	guk	genuen	genituen	gu	GIN	tzai zki	GU	n	guri	guri	GEN		GU	n	guri	
zuek	zineten	zuek	ZINTU ZTE	ZUE	n	zuek	zenuten	zenituzten	zuek	ZIN	tzai zki	ZUE	te	n	zuei	ZEN		ZUE	te	n	zuei
halek	ziren	halek	(**)	(z)TE	n	halek	zuten	zituzten	halek	ZI	tzai zki	E	n	halei	halei	Z		E	te	n	halei

NOR-NORI-NORK



Orainaldia

NOR-NORI-NORK				
	NOR	NORI	NORK	
niri		T / DA	T	nik
zuri		ZU	ZU	zuk
hari	DI (zki)	O	-	hark
guri	↙ ↘	GU	GU	guk
zuei		ZUE	ZUE	zuek
haiei		E	TE	haiek

Lehenaldia

NOR-NORI-NORK				
	NORK	NOR	NORI	
nik	N		DA	n niri
zuk	ZEN		ZU	n zuri
hark	Z	I (zki)	O	n hari
guk	GEN	↙ ↘	GU	n guri
zuek	ZEN		ZUE te	n zuei
haiek	Z		E te	n haiei

NOR-NORI-NORK: praktikatzeko taulak

- 15 Osatu taulak dagozkien aditz-laguntzaileekin. Ondorengo esaldi hauek lagungarriak izango zaizkizu: *Gaur nik zuri eskua(k) eman... / Atzo nik zuri eskua(k) eman...*

Orainaldia • *Gaur nik zuri eskua(k) eman...*

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik						
zuk						
hark						
guk						
zuek						
haiek						

Lehenaldia • *Atzo nik zuri eskua(k) eman...*

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik						
zuk						
hark						
guk						
zuek						
haiek						

NOR-NORI-NORK: praktikatzeko taulak beteta

16 Zuzendu aurreko orrialdeko taulak eta erreparatu aditz-laguntzaileak eratzeko patroiei. Zer ondorio atera ditzakezu?

Orainaldia *Gaur nik zuri eskua(k) eman di(zki)zut.*

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik		di(zki)zut	di(zki)ot		di(zki)zuet	di(zki)et
zuk	di(zki)dazu		di(zki)ozu	di(zki)guzu		di(zki)ezu
hark	di(zki)t	di(zki)zu	di(zki)o	di(zki)gu	di(zki)zue	di(zki)e
guk		di(zki)zugu	di(zki)ogu		di(zki)zuegu	di(zki)egu
zuek	di(zki)dazue		di(zki)ozue	di(zki)guzue		di(zki)ezue
haiek	di(zki)date	di(zki)zute	di(zki)ote	di(zki)gute	di(zki)zute	di(zki)ete

Lehenaldia • Atzo nik zuri eskua(k) eman ni(zki)zun.

	niri	zuri	hari	guri	zuei	haiei
nik		ni(zki)zun	ni(zki)on		ni(zki)zuen	ni(zki)en
zuk	zeni(zki)dan		zeni(zki)on	zeni(zki)gun		zeni(zki)en
hark	zi(zki)dan	zi(zki)zun	zi(zki)on	zi(zki)gun	zi(zki)zuen	zi(zki)en
guk		geni(zki)zun	geni(zki)on		geni(zki)zuen	geni(zki)en
zuek	zeni(zki)daten		zeni(zki)oten	zeni(zki)guten		zeni(zki)eten
haiek	zi(zki)daten	zi(zki)zueten	zi(zki)oten	zi(zki)guten	zi(zki)zueten	zi(zki)eten

Ariketak

17 Irakurri esaldiak eta bete hutsuneak dagozkien aditz-laguntzaileekin:

0. Gurasoek gaur albiste onak ekarri ...**dizkigute**... neba eta bioi.
1. Osabak zuei oroigarri politak ekarri trenean egin zuen bidaia luze hartatik.
2. Nik eskerrak eman nahi Ainhoari horrenbeste lagundu izanagatik.
3. Behar badituzue, nik berriro utziko nire mozorroak.
4. Iaz gure herrira etorri zinenean, guk ez txoko eder guzti-guztiak erakutsi.
5. Mikelek ez niri inoiz bere arazoak kontatzen.
6. Zenbat diru utzi zuk lagunari egun hartan?
7. Txikitari arreba nagusiak eramaten niri motxila eskolarako bidean.
8. Zuek noiz ekarriko zuen maskotak gelara?
9. Berriro kontatu behar aitite-amamek bilobei ipuin zahar haiek.
10. Dendariak ez ondo ulertu eta mandarinen ordeztan laranja eman

18 Irakurri testua eta bete hutsuneak dagozkien aditz-laguntzaileekin:

“Aita, Laura eta Bruno, auzoa atzean utzi, eta mendi-magalera iritsi ...**dira**..... . Burdinazko mendiak, Bizkaiko industrializazioaren sorlekua, eta aitaren txikitako abentura guztien eszenatokia. Beste hainbatetan lez, burdina meatzetatik portuetaraino garraiatzeko baliatzen azpiegitura erraldoien gainean hizketan hasi aita Laurari. ‘Hemendik *Franco-Belga* konpainiaren trenbidea zetorren, eta handik hona plano inklinatu bat; eta han aurrerago balde-linea bat jaisten’

Inoiz saiatu Laura aitak hainbestetan aipatzen burdinazko egitura korapilatsu haiek bere buruan irudikatzen, baina hain urrun geratzen zaizkio...

Agian, aitak gauzak kontatzen adiago entzun beharko luke Laurak.


Inkontzienteki irribarre egin Laurak aitari, eta baietz-baietz buruarekin, honek atzamarrarekin mendi biluziak seinatu eta keinuen bidez zerbait azaltzen bitartean.

Ia nahigabe, arratsaldeko lan-saiora joan Lauraren pentsamenduak. Udazkenean nahiko hutsik egoten estudioa, NANerako argazkiez gain, udaberrian ezkontzekoak diren bikoteak soilik joaten, ezkontza-gonbidapenak aukeratzera. Nahiko *cursiak* eta inpersonalak iruditzen Laurari, baina tamaina, kolore eta mota guztietakoak salgai: originalak, tradizionalagoak, umore-ukituarekin...

Aita isilik doa orain, Lauraren arreta hain sumatuko urrun, istorio zaharrak bere golkorako gogoratzea erabaki duela. Bruno betiko farolera iritsi Inguruan hiru bira egin ondoren, ureztatze-falta duela erabaki , eta hanka altxatu

19 Zure ustez, sentitzen al du Laurak batzuetan iraganari balio gutxi ematen diola? Arrazoitu zure erantzuna.

- 1 Sortu aditz bakoitzeko komikitxo bana. Irudikatu **NOR**, **NOR-NORK**, **NOR-NORI** eta **NOR-NORI-NORK** motetako binetak eta margotu kolore-kodea erabiliz, adibidean bezala. Komiki bakoitzean margotze-teknika ezberdina erabil dezakezu.



IKASLEA (zerrendako zenbakia):

Adizkiak: indikatiboa

DATA:.....

..... puntu	NOTA:
-------------	-------------

Bete hutsuneak dagozkien aditz laguntzaileekin. Atal bakoitzeko 5 esaldi osatu behar dituzu, beraz, 20 esaldi denera.

NOR-NORK:

1. Txikitan, zuk gu askotan ikusten parkean.
2. Kaletik gindoazela, guk Leire eta Malen ikusi
3. Gaur entzundakoa jakin eta gero, nik ere ez zuek maite.
4. Nik bikote hori Londreseko kaleetan zehar ikusi duela bi urte.
5. Atzerritarrek gu hemen behar herria erakusteko.
6. Haiek iaz ni jo egin arrebari panpina kentzeagatik.
7. Datorren urtean guk zuek ez horrenbeste ikusiko Aixerrotako korridoreetan zehar.
8. Gazteak zinetenean zuek ere izango zenbait buruhauste, ezta, amama?

NOR-NORI (NOR 3. pertsona):

1. Gaur atsedendaldian Mireni koadernoak galdu
2. Haiek iazko oporretan zuri bisitan joan
3. Nire lagunei, aspertuta daudenean, begiak ixten hasten
4. Irati beti gerturatzen neba nagusiari, harekin jolasteko asmoz.
5. Orain dela bost minutu, Amaia Pellori liburua itzultzera joan
6. Lehen Ander zuri laguntza ematera hurreratu
7. Atzo lagunei kanpin-denda zulatu
8. Gaur guri boligrafoa apurtu

NOR-NORI-NORK:

1. Iaz nik opari bana ekarri zuei Marokotik itzuli nintzenean.
2. Atzo nork bota zuei arrautzak balkoitik behera?
3. Nik helduaroan ez arazoei horrenbesteko garrantzirik emango.
4. Zuek ondoko gelakoei azterketako galderak erakutsi atzoko atsedendaldian.
5. Etzidamuko partidari guk ez aurkariari aukera bat bera ere sortzen utziko.
6. Medikuek egunean hiru kafe ez hartzeko aholkatu nire izeko-osabei.
7. Nik zahartzaroan ez errietary egingo nire bilobei.
8. Herenegun zuek kromo bana oparitu bigarren mailakoei.

Indikatiboa nahasian:

1. Kaletik gindoazela, guk Ainhoa ikusi
2. Guri berehala ahaztu batuketak egitea kalkulagailua erabiltzen hasi ginenean.
3. Amak ni kiroldegira autoz eramaten egunero.
4. Gaur goizean, gure bizilagunak pastela egiteko behar zuen irina eskatu
5. Batxilergoko ikasleak euren bizipenak kontatzera etorriko guri datorren astean.
6. Atzo goizeko partidari, teniseko jokalariek kiroldegiko zuzendariari adarra jo
7. Uda oro etortzen diren ingelesek nire oporraldi preziatuak hondatzen niri.
8. Zuk egunero ekartzen ogitartekoa atsedendaldian jateko.

Deskribapen-testuak

Definizioa:

Gai baten berri ematen dute, era objektiboan eta argian. Gizarte zabal bati zuzenduta daudenez, informazio orokorra eta ulerterraza ematen dute.

Gure ikas-egoeran, erakusketako horma-irudietan zein ahozko aurkezpenetan deskribapen-testuak baliatuko ditugu, Getxoko Andra Mari auzoko lekuak eta ohiturak deskribatzeko.

Ezaugarriak:

▶ Testuak **paragrafotan** banatzen dira ulergarriagoak izateko. Paragrafo bakoitzean ideia nagusi bat azaldu ohi da.

▶ Azaldutakoa nolakoa den adierazteko, askotariko **adjektiboak** erabiltzen dira. Adjektiboek izenari buruzko informazioa ematen digute. Adibidez:

adib.

“Laurak ingurura begiratzen du, harro. Tentuz aukeratutako IKEAko altzariek oreka perfektua osatzen dute etxearen erdigune den tximinia zaharrarekin. Leihoak dituen hormatik arin batean igaro du begirada Laurak; hobe horrela. Markelen amak ilusioz jositako gortinak deigarriegiak dira eta egongela txikiaren harmonia hausten dute.”

▶ Testuko ideiak ordena logikoan azaldu behar dira eta batasuna izan behar dute. Horretarako, **testu-antolatzaileak** erabiltzen dira. Hona hemen erabilgarriak izango zaizkizuen batzuk:

1 Testuari hasiera emateko:

Aztertuko dugun gaia... Lehenik eta behin, ...
Hitzaldi honen bidez, ... Hona hemen...

4 Arrazoiak emateko:

Hori dela eta, ... Beraz,
Izan ere, ... Horregatik, ...

2 Ideiak gehitzeko:

Era berean, ... Bestalde, ...
Gainera, ... Hala ere, ...

5 Denbora adierazteko:

Duela gutxira arte, ... Azkenaldian...
Orain, berriz, Beranduago...

3 Adibideak emateko:

..., adibidez, ... *..., besteak beste, ...*
..., esate baterako, ... *..., hau da, ...*

6 Azalpenari bukaera emateko:

Amaizteko, ... Ondorio gisa, ...
Azkenik, ... Horrenbestez, ...

1 Ordenatu ondorengo deskribapen-testuko paragrafo hauek.

1

Meatzaritza Trianoko Mendietan

Trianoko mendiak antzinatik izan dira ezagunak haien burdinagatik. Lehenengo aipamena erromatar garaikoa da, K.o I. mendean Plinio zaharrak inguru honetan burdinazko mendi bat zegoela idatzi baitzuen. Hala ere, meatzaritza bilakaeraren sasoi gorena XIX. mendea izan zen.


Familiarekin etorritako langileak etxeak eraikitzen hasi ziren inolako antolaketarik gabe, material eskasekin eta meategietatik gertu –etxeak meategiaren lana oztopatzen bazuen, desegin behar izaten zen inolako kalte-ordainketarik gabe–. Arboleda auzoa era horretan sortu zen, 1877. urtean.

Bizi-baldintza horietan, higiene-egoera penagarria zen: ez urik, ez argirik, ez komunik, aireztapen eskasa, jende pilaketak... Horregatik, gaixotasunak eta izurriteak erraz zabaltzen ziren bizilagunen artean. Gainera, horri guztiari lan-baldintza gogorak eta istripuak gehitzen badizkiogu, bizi-itxaropena oso baxua zen; garai txarretan, 20 eta 30 urte.

Industrializazio-garaian, Europan kalitate oneko burdingaia behar zen, eta bi eskualdetan soilik topatu zitezkeen: Trianoko mendietan eta Eskandinavian. Bi aukeren artean Bizkaikoa askoz hobetagoa zen, klima epela eta itsasoaren hurbiltasunaz gain, kalitate handiko burdina lurrazalean egonik, erauztea errazagoa baitzen.

Aipatutako egoera negargarriak meatzari-mugimendu indartsu baten sorrera bultzatu zuen; besteak beste sozialistak, komunistak –Dolores Ibarruri– eta anarkistak agertu ziren. Talde horien mobilizazioei esker, lan- eta gizarte-baldintzak dezente hobetu ziren.

Merkatuen eskaera honek aldaketa sozial eta urbanistiko handiak ekarri zizkien meatzaldeari eta Ibaizabal-Nerbioi arro guztiari. Izan ere, burdinaren erauzte- eta garraiatze-sistemek eskulan ugari eskatzen zuten, nekazaritzatik nekez bizi zitezkeen hainbat eskualdetatik –Euskal Herritik zein Espainiatik– etorkin asko gerturatu ziren Trianoko Mendietara.



Testua aztertzen

2 Testutik abiatuta, erantzun galderoi:

- Zerk ekarri zizkion aldaketa handiak Meatzaldeari eta Ibaizabal-Nerbioi arro guztiari?
- Zer gertatzen zen etxe batek meategiaren lana oztopatzen bazuen?
- Nori esker hobetu ziren lan- eta gizarte- baldintzak Trianoko Mendietan?

3 Markatu testuko adjektiboak eta testu-antolatzaileak eta idatzi hemen:

Adjektiboak		Testu-antolatzaileak	
- ezagunak	-	- Hala ere	
-	-	-	
-	-	-	
-	-	-	
-	-	-	
-	-	-	
-	-	-	

4 Azaldu testuan ageri diren hitz hauen esanahiak:

goren

erauzte

izurri

kalte-ordain



Ariketen erantzunak:

3. ERANSKINA

- 1 0. Amaia eta biok duela hamar urte hasi **ginen** hemen lanean.
 1. Nire logelako leihotik Serantes mendia ikusten **zen/da**.
 2. Atzo oso goiz piztu **ziren** gure herriko kale-argiak.
 3. Neguan ez **ziren/dira** zikoinak etortzen elizako kanpandorrera.
 4. Zu zenbat aldiz egon **zara** atzerrian?
 5. Gu haurtzaroan ez **ginen** horrenbestetan elurretara joaten.
 6. Nire aitona-amonak egunero ibiltzen **ziren/dira** kale horietan zehar.
 7. Zu txikitan ez **zinen** haurtzaindegira gustura joaten.
 8. Zuek joan lasai; gu hemen geldituko **gara**.
 9. Ez **zen/da** batere ideia ona lehengusinari bururatu zitzaion hura.
 10. Zuek noiz etorri **zineten** Getxoko Andra Mari auzora bizitzera?
- 2 “Duela bost aste eskas etorri **ziren** bizitzera Markel eta Laura azken honen aitite-amamena izandako etxera, eta jadanik espiritu gaztez blaitu dutela iruditzen zaio Laurari. Ingurura begiraten du, harro. Tentuz aukeratutako IKEAko altzariak oreka perfektua osatzen dute etxearen erdigune den tximinia zaharrarekin. Leihoak dituen hormatik arin batean igaro du begirada Laurak; hobe horrela. Markelen amak ilusioz jositako gortinak deigarriegiak **dira** eta egongela txikiaren harmonia hausten dute. ‘Bah, denbora kontua izango **da**’, esaten dio Laurak bere buruari. Laster konbentzituko du Markel gortina berriak erostera joateko. Tximiniak funtziona lezake, baina Laurak nahiago ditu berogailuak; garbiagoak **dira**. Zaku bete egur ekarri zion aitak aurrekoan, eta ‘Tximinia erabiliko bazenute, etxe osoa berotuko luke besterik gastatu gabe’ esan zion. Zenbat gustatzen zaion egurra aitari. Haren aita arotza **zen**, agian horregatik izango da. Ustekabean, Markelek eta berak bota dituzten altzari zaharren artean aititek eginiko baten bat egon zitekeela otu zaio Laurari. ‘Lastima...’ ‘Ondo gaude hemen...’, esan dio Laurak bere buruari. Etxeak hiru logela ditu; egongela, sukaldea eta komuna. Dena 60 metro karratutan. Langile-etxebizitza estua **zen** aitite-amama eta haien hiru seme-alabentzat, baina nahikoa **da** Markelentzat eta berarentzat.”
- 3 Erantzun irekia; adibidez:
 - 1) IKEAko altzariak / aititeren altzari zaharrak.
 - 2) Tximinia / berogailuak.
 - 3) Familia handia / familia txikiagoa.
- 4 Erantzunak taulan bertan.
- 5 Komentatu kasu-marka bakoitzari dagozkion erroak.
- 6 0. Etxekook azkenaldian zu ez **zaitugu** ia inoiz ikusten.
 1. Gaur nik hainbat gauza berri ikasi **ditut**.
 2. Atzo guk zuek agurtu **zintuztegun** entrenamendua hasi aurretik.
 3. Institutura etorri nintzen lehenengo aldian, oso ondo sentiarazi **ninduzuen** Ederrek eta zuk.
 4. Joan den neguan zuk gu etxera gonbidatu **gintuzun**.

5. Herriak borroka galdu **du** eraikitzaile boteretsuen aurka.
6. Batxilerreko ikasleek oso ondo tratatu **zaituztete** zuek ipuinak kontatzera etorri direnean.
7. Euriak gu ez **gaitu** bakean utziko asteburu osoan.
8. Berangoko eskolan geundela nik zu ez **zintudan** ondo ezagutzen.
9. Guk atzo erabaki ona hartu **genuen**.
10. Saltzaileek berehala jaso **zituzten/dituzte** postuak azoka amaitutakoan.

7 “Lan gehiegi egiten **du** Markelek azken boladan, lan gogor eta neketsua. La Naval lantegian hasi zenetik, etxera bueltatzean ez **du** afaltzeko ere indarrik izaten. Goizean goiz hasi eta gaueko zortzi eta erdiak arte kable astunak gora eta behera garraiatzen **ditu** eraikitzen ari diren itsasontzi berri batean. Pena ematen dio Laurari Markel ontziolan imajinatzeak, ordu luzez instalazio elektriko erraldoiaren tripetan galduta. Apetatsua **da** lana Markelekin, hilabeteetan ez **du** bere atea jo eta orain telebista ikusteko astirik ere ez dio uzten. Laura udaberrian eta gabonetan egoten **da** lanpetuen. Udaberrian ezkontzak, bataioak eta horrelakoak egiten **ditu**, eta gabonetan haurren erreportajeak **dira** nagusi, gurasoek familia osoari egutegiak eta postalak oparitzeko erabiltzen dituzten horiek. Argazkigintza-estudioak ez du diru askorik ematen, baina Trapagaranen bertan dago, eta oinez joan daiteke egunero Laura.”

8 Erantzun librea.

9 Erantzunak taulan bertan.

10 Komentu kasu-marka bakoitzari dagozkion erroak.

11 0. Zuri zenbat aldiz apurtu **zaizkizu** betaurrekoak ikasturte honetan?

1. Goiko auzokideei askotan erortzen **zaizkie** arropak gure balkoira.
2. Guri ez **zaigu** ondo iruditu atzo gertatutakoa.
3. Orain dela bost minutu Udane Pellori liburua itzultzera joan **zaio**.
4. Zuei atsedean hartzea komeni **zaizue**.
5. Duela bi aste haiek guri bisitan etorri **zitzaitzizkigun**.
6. Gaur ni laguntza eske joan **natzaizu** zuri.
7. Gaur atsedendian ni Mireni koaderno eskatzera hurbildu **natzaio**.
8. Gu iazko oporretan zuri bisitan joan **gintzaizkizun**.
9. Nire lagunak, aspertuta daudenean, niri hizketan hasten **zaizkit** beti.
10. Zu txikitan beti gerturatzen **zintzaizkion** neba nagusiari berarekin jolasteko asmoz.

12 “Ia eguerdiko bezala, aita etorri **zaio** Laurari etxera. General Eléctrica lantegian erretiroa hartu zuenetik sukaldari-sena duela deskubritu du, eta Laura eta Markeli ‘fundamentuzko janaria’ ekartzen die tupperretan.

Ordu bietatik lau eta erdiak bitartean estudioa itxita dagoela aprobeztatuz, Laurak eta aitak elkarrekin bazkaldu eta Bruno txakurrarekin paseo laburra egiten **dute**.

Tupperren aitzakia izango ez balu ere, egunero etorriko litzateke aita San Andrés auzora. Hemen hazi zen azken finean, eta haurtzaroko oroitzapenak izaten **dira** gozo eta bizienak helduaroan; edo behintzat hori esaten **dute** denek.

Leihotik begira edo ate aurrean egoten diren alargun guztiak agurtu egiten **ditu** aitak banan-banan; guztien izenak ezagutzen ditu. ‘Agian nik ere ikasi beharko nituzke...’, bururatu

zaio Laurari une batez. Gustatuko litzaioke auzokide gazteagoak izatea, baina aldatuko **da** hori ere denborarekin, Markelen amak jositako gortinak bezala.”

13 Erantzun irekia; adibidez: Laurak ez ditu auzokideen izenak ezagutzen. Pertsona nagusiak dira, eta berak auzokide gazteagoak izatea nahiago luke. Aitak, berriz, auzokide guztiak agurtzen ditu eta haien izenak ezagutzen ditu. Erantzun librea.

14 Erantzun librea.

15 Erantzunak taulan bertan.

16 Komentu kasu-marka bakoitzari dagozkion erroak.

17

0. Gurasoek gaur albiste onak ekarri **dizkigute** nebari eta bioi.
1. Osabak zuei origarri politak ekarri **zizkizuen** trenean egin zuen bidaia luze hartatik.
2. Nik eskerrak eman nahi **dizkiot** Ainhoari horrenbeste lagundu izanagatik.
3. Behar badituzue, nik berriro utziko **dizkizuet** nire moztarroak.
4. Iaz gure herrira etorri zinenean, guk ez **genizkizun** txoko eder guzti-guztiak erakutsi.
5. Mikelek ez **dizkit** niri inoiz bere arazoak kontatzen.
6. Zenbat diru utzi **zenion** zuk lagunari egun hartan?
7. Txikitan arreba nagusiak eramaten **zidan** niri motxila eskolarako bidean.
8. Zuek noiz ekarriko **dituzue** zuen maskotak gelara?
9. Berriro kontatu behar **dizkiete** aitite-amamek bilobei ipuin zahar haiek.
10. Dendariak ez **zidan/dit** ondo ulertu eta mandarinen ordeztan laranjak eman **zizkidan/dizkit**.

18 “Aita, Laura eta Bruno, auzoa atzean utzi, eta mendi-magalera iritsi **dira**. Burdinazko mendiak, Bizkaiko industrializazioaren sorlekua, eta aitaren txikitako abentura guztien eszenatokia. Beste hainbatetan lez, burdina meatzetatik portuetaraino garraiatzeko baliatzen **ziren** azpiegitura erraldoiei buruz hizketan hasi **zaio** aita Laurari. ‘Hemendik Franco-Belga konpainiaren trenbidea zetorren, eta handik hona plano inklinatu bat; eta han aurrerago balde-lerro bat jaisten **zen**...’

Inoiz saiatu da Laura aitak hainbestetan aipatzen **dizkion** burdinazko egitura korapilatsu haiek bere buruan irudikatzen, baina hain urrun geratzen zaizkio...

Agian, aitak gauzak kontatzen **dizkionean**, adiago entzun beharko luke Laurak.

Inkontzienteki irribarre egin **dio** Laurak aitari, eta baietz-baietz buruarekin, honek atzamarrarekin mendi biluziak seinlatu eta keinuen bidez zerbait azaltzen dion bitartean. Ia nahigabe, arratsaldeko lansaiora joan **dira** Lauraren pentsamenduak. Udazkenean nahiko hutsik egoten **da** estudioa, NANerako argazkiez gain, udaberrian ezkontzekoak diren bikoteak soilik joaten **dira**, ezkontza-gonbidapenak aukeratzera. Nahiko *cursiak* eta inperzonalak iruditzen **zaizkio** Laurari, baina tamaina, kolore eta mota guztietakoak **ditu** salgai: originalak, tradizionalagoak, umore-ukituarekin...

Aita isilik doa orain, Lauraren arreta hain sumatuko **zuen** urrun, istorio zaharrak bere golgorako gogoratzea erabaki duela. Bruno betiko farolera iritsi **da**. Inguruan hiru bira egin ondoren, ureztatze-falta duela erabaki **du**, eta hanka altxatu **du**.”

19 Erantzun librea.

4. ERANSKINA

- 1**
 - 1)** Trianoko mendiak antzinatik izan dira ezagunak haien burdinagatik. Lehenengo aipamena erromatar garaikoa da, K.o I. mendean Plinio zaharrak inguru honetan burdinazko mendi bat zegoela idatzi baitzuen. Hala ere, meatzaritzaren bilakaeraren sasoi gorena XIX. mendea izan zen.
 - 2)** Industrializazio garaian, Europan kalitate oneko burdingaia behar zen, eta bi eskualdetan soilik topatu zitekeen: Trianoko mendietan eta Eskandinavian. Bi aukeren artean Bizkaikoa askoz hobeagoa zen, klima epela eta itsasoaren hurbiltasunaz gain, kalitate handiko burdina lurrazalean egonik, erauztea errazagoa baitzen.
 - 4)** Familiarekin etorritako langileak etxeak eraikitzen hasi ziren inolako antolaketa gabe, material eskasekin eta meategietatik gertu –etxeak meategiaren lana oztopatzen bazuen, desegin behar izaten zen inolako kalte-ordainketarik gabe–. Arboleda auzoa era horretan sortu zen, 1877. urtean.
 - 5)** Bizi-baldintza horietan, higiene-egoera penagarria zen: ez urik, ez argirik, ez komunik, aireztapen eskasa, jende pilaketak... Horregatik, gaixotasunak eta izurriteak erraz zabaltzen ziren bizilagunen artean. Gainera, horri guztiari lan-baldintza gogorrak eta istripuak gehitzen badizkiogu, bizi-itzaropena oso baxua zen; garai txarretan, 20 eta 30 urte.
 - 6)** Aipatutako egoera negargarriak meatzari-mugimendu indartsu baten sorrera bultzatu zuen; besteak beste sozialistak, komunistak –Dolores Ibarruri– eta anarkistak agertu ziren. Talde horien mobilizazioei esker, lan- eta gizarte-baldintzak dezente hobetu ziren.
- 2**

-Europako merkatuetatik zetorren burdin-eskaera handiak ekarri zizkion aldaketa handiak Meatzaldeari eta Ibaizabal-Nerbioi arro guztiari.

-Etxe batek meategiaren lana oztopatzen bazuen, etxea desegiten zuten inolako kalte-ordainketarik gabe.

-Meatzari-mugimendu indartsutik sortutako taldeei esker (sozialistak, komunistak, anarkistak...) hobetu ziren lan- eta gizarte-baldintzak Trianoko Mendietan.
- 3**

-ezagunak, gorena, oneko, hobeagoa, epela, handiko, errazagoa, erabateko, eskasak, penagarria, gogorrak, negargarriak, indartsu.

-Hala ere, izan ere, horregatik, gainera, aipatutako..., besteak beste.
- 4**

-Goren: prestutasunean, bikaintasunean eta kidekoetan garaiena dena.

-Erauzte: bereiztea; bereziki, zerbait bere errotik bereiztea, ezarri dagoen lekutik bereiztea.

-Izurri: lurralde eta denbora berean biztanleen zati handi bati erasotzen dion eritasun kutsakorra.

-Kalte-ordain: kalteren baten ordainetan ematen edo hartzen den diru-kopurua.

AZKEN HITZA

Atal honetan proiektu hau garatu ahala sortutako zenbait hausnarketa, ideia eta ondorio bildu ditut:

- Aurretik aipatu badut ere, azpimarratu nahi dut hezkuntza-egitasmo hau proposamen bat dela, ikastetxean aztertu eta gure testuinguruaren arabera moldatu beharrekoa. Hainbat aukera daude eremuka lan egiteko, eta komeni da lehenbailehen klaustroak horiek ezagutzea eta denon artean ekarpenak egitea, 2023-2024 ikasturte honetan zehar hezkuntza-egitasmoa egokitzeko eta horretan arituko den lantaldea osatzeko. Era horretan, 2024-2025 ikasturtearen hasieratik ikas-egoerak garatu ahal izango ditugu eta arian-arian hasi eremuka lan egiten.
- DBHko 1. ziklo osorako ikas-egoera egokiak sortzeko prozesuak ahalegin eta koordinazio handia eskatzen du. Oso lagungarria litzateke, nire iritziz, Hezkuntza Sailak proposamen orokor bat garatzea. Lehendabizi, DBHko 1. zikloko curriculumean oinarrituta, eremuka lan egiteko ikas-egoera batzuk sortu beharko lirateke. Ondoren, ikastetxe bakoitzak proposamen orokor hori bere testuingurura moldatu beharko luke; hots, ikas-egoera horiek egokitu egin beharko lituzke bere ikasleentzat esanguratsuak eta hurbilak izan daitezten.
- "Gazteak baleki, zaharrak baleza" ikas-egoera Aixerrotarako diseinatuta badago ere, uste dut gure lurraldean orokortua dagoela belaunaldien arteko deskonexioa; eta, hortaz, ikas-egoera hau erraz estrapolatu daiteke beste ikastetxe baten testuingurura, edozein auzorentzat baita onuragarria pertsonen arteko loturak egitea.
- Ikas-egoera pilotuak Euskara eta Literatura, Geografia eta Historia eta Hezkuntza Plastikoa arloak uztartzen baditu ere, bidea eman dezake beste arlo batzuk ere jorratzeko. Maketak egitean, esaterako, Matematika arloari dagokion azalaren kalkulua landu daiteke. Paisaiaren zenbait geruzek, bestalde, lotura estua daukate Biologia eta Geologia arloarekin.

BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA

BERRITZEGUNE NAGUSIA, Ikas-egoera eredua. *Nire begiak ematen dizkizut* [linean]. 2023. [Kontsulta: 2023-09-24]. Erabilgarri, hemen: <https://berritzegunenagusia.eus/exelearning/hbi/NireBegiak/index.html>

DEKRETUA 77/2023, maiatzaren 30ekoa, *Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa* [linean]. 2023. [Kontsulta: 2023-09-24]. Erabilgarri, hemen: <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2023/05/30/77/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu/>

HEZKUNTZA SAILA. *Programazio Didaktikoak prestatzeko gida. Oinarrizko Hezkuntza: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza* [linean]. 2023. [Kontsulta: 2023-09-24]. Erabilgarri, hemen: <https://curriculum.euskadi.eus/eu/gidak>

PEREZ GOIKOETXEA, Eneko. *Burdingintza Triano eta Galdamesko mendietan* [inprimatua]. Bizkaiko Foru Aldundia, 2003.

TEJERO, Sergio. *Programazio berriak egiteko txantiloia (Koldo Mitxelenako proposamena)* [linean]. Gasteizen, 2023. [Kontsulta: 2023-09-28]. Erabilgarri, hemen: <https://sites.google.com/koldomitxelena.net/kmkurrikuluma/txantiloiak>

TEJERO, Sergio. *Koldo Mitxelenako proposamena: Ikas-egoerak egiteko txantiloia* [linean]. Gasteizen, 2023. [Kontsulta: 2023-09-28]. Erabilgarri, hemen: <https://sites.google.com/koldomitxelena.net/kmkurrikuluma/txantiloiak>

ZENBAITEN ARTEAN. *Euskal Hizkuntza eta Literatura 1DBH* [inprimatua]. Erein, 2012.

ZENBAITEN ARTEAN. *Erabili Euskara eta Literatura 1DBH* [inprimatua]. Zubia/Santillana, 2022.

ZENBAITEN ARTEAN. *Eragin Euskara eta Literatura DBH1* [inprimatua]. Zubia/Santillana, 2015.

ZENBAITEN ARTEAN. *Geografia eta Historia 1DBH* [inprimatua]. Zubia/Santillana, 2022.